

Herririk Herri | 6 |

lurretako aurrekontuetan diru atala gorde dute kiroldegia egiteko lurak erosteko



Berbaz | 8 |

A.Loiola: "Mallabiko auzoetan erdigunerik ezingo da garatu lege berriekin"

Amalurra | 18 |

Olioa birziklatzeko hiru edukiontzi finko ipini dituzte aste honetan Berrizen

Bederatzi jesarlekuko taxiak autobusa ordezkatu du

Garai • Bezero gutxi dituela-eta, Garaiko autobusa kendu eta bederatzi jesarleku dituen taxi zerbitzua ipiniko dute. Udala eta Aldundia tratuan dabilta asmoa zelan bideratu adosteko. Oraindik ez dute epe zehatzik jakinarazi. **3**

Udaltzainen eta Ertzainen lankidetzaz zehazteko protokoloa

Elorrio • Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren "lan esparruak definitzeko eta elkarren arteko komunikazio sistema hobetzeko" helburua du martxoan zehar aurkeztu gura duten protokolo berriak. **4**

Inauteri gaueko jai berezia Gozategigaz, bihar Plateruenean

KULTURA • Gurrutxaga, Sukia eta Sarriegi bertsolariak gonbidatu ditu Gozategigaz martxoaren 5ean Plateruenean ospatuko duten jaira. Asier Gozategigaz azaldu dizkigu kontzertuaren eta azken diskoaren ingurukoak. **11**



Abadiño

EAJren ustez, gobernu taldeak "nekazalguneak ahaztu ditu" **6**

Izurtza

Ehundik gora izurtzarrek parte hartu dute herri galdeketan **7**

Durangaldea

Egitarau zabala antolatu dute inauteriak direla-eta **3**

Urki-Hegoalde lotunea egiten apirilean hastea aurreikusitako dute

> PSE-EEK dioenez, "proiektuak bultzada erabakiorra jaso du azkeneko hileetan"

> Tabira Sabecoko biribilguneagaz lotuko du saihebidetako berriak **2**



Kepa Aginako

Herri Urratsen aldeko jaialdia martxoaren 12an

Durango • Iazko Herri Urratsen emaitza eskasak utzi zituela-eta, Iparraldeko ikastolen aldeko aurtengo festa bultzatzeko, *Gu ere lakuko* ekimena prestatu dute hainbat elkartetan eta eragilek. Tar-

tean, martxoaren 12an, Plateruenean egun osoko jai antolatu dute; Mikel Garaizabalegaz ardo dastaketa, Igor Elortza eta Sustrai Colinagaz bertso bazkaria, eta Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna. **2**

ALKIMAX

Alquilamos soluciones







Eitua Industriegunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Herri Urratsen aldeko jaialdia, martxoaren 12an, Plateruenean

Auzolanean egingo dute elkartasun jaialdia; batutako dirua Herri Urratsera bideratuko dute

Iparraldeko ikastolen jaialdiak emaitza eskasak izan zituen joan zen urtean, eta Seaskak laguntza deia egin zuen egoeraz larrituta. Horretara, aurten maiztaren 8an ospatuko da Herri Urrats eta dagoeneko hasi dira mugitzen elkarte eta eragileak berau indartzeko asmoz. Eguaztenean egin zuten egitasmoaren aurkezpena Berbaroko, Di-Dako, Kurutziaga Ikastolako, Platerueneko eta Anbotoko ordezkariak.

Laku bat munduan da aurten-go Herri Urratsen leloa, euskararen lekua eta Senpereko lakua

Txartelak Plateruenean daude salgai; Pirritx eta Porrotx ikusteko, Berbaron ere bai

lotuz; "euskaldunoi begira, geure burua baieztatzeko; euskaltzale erdaldunei gonbidapena egiteko; eta instituzioei ofizialtasun eskea egiteko". Horri lotuta, *Guere* lotuko ekimena prestatu dute elkartasunez. Egun osoko jaialdia izango da hurrengo zapatuan Plateruenean burutuko dena. Txartelak bertan ipiniko dituzte salgai, eta pailazoan emanaldikoak Berbaron ere eskuratu ahal izango dira.

Bolondres eta laguntzaileak Platerueneko sukaldari, teknikari eta zerbitzariak, Berbaro elkarte-ko hezitzaileak, Ikastolako gurasoak, bertsolariak, Pirritx eta Porrotx pailazoak, ardo katako partaideak eta anbotokideak boluntario modura egingo dute lan egun horretan. Kanpaina orokorreko irudia Di-Da Komunikazio enpre-



Jaialdia egingo den lekuan bertan, Plateruenean, egin zuten aurkezpena eguaztenean.

sak egin du, eta abestia Berri Txarrak taldeak, auzolan sen beragaz.

Horretaz gainera, ekitaldia gauzatu ahal izateko hainbat dira laguntza eman duten entitateak: Kalitatea Fundazioa, Lakuntza Soinu eta argiztapenak, Cruz Campo, Cafés Baqué, Launa Upategia eta Coca-Cola. ■ M. Onaindia.

EGITARAUA

'Hordago Ardoa'

Mikel Garaizabalegaz, ardo dastaketa, 12:30ean. Katoren barruan, ardoagaz lotutako poesia eta musika saioak ere eskainiko dituzte. (Prezioa: 3 euro)

Bertso-bazkaria

Igor Elortza eta Sustrai Colinazagaz, 14:30ean. (Prezioa: 20 euro)

Pirritx eta Porrotx

Pailazoan ikuskizuna, 18:30ean. (Prezioa: 6 euro)



Landako Elkartegian egin zuen ekitaldia EAJ alderdiak.

Iurreta-Gerediaga tartea doan, VIA-T sistemagaz

Autopistako tramu hori doakoa izango dela dio Jose Luis Bilbaok, N-634ko auto emaria arintzeko

EAJ alderdiak ekitaldia egin zuen eguaztenean Durangon. Bertan batu ziren Aitziber Irigoras Durangoko alkatea, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko ahalguburua, Andoni Ortuzar Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria eta Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria.

N-634 errepidean, Iurreta inguruan ilaraluzeko sortzen dire-

la gogoratu zuen Bilbaok, eta autoen emari hori "arintzeko" neurri bat iragarri zuen. Orain A-8 autopistan hirugarren erreia egin dabilza Iurreta eta Gerediaga artean, eta Gerediagan ordainlekua ere egingo dute. Lanak amaituta, VIA-T sistema daukatenean, Iurreta-Gerediaga tramua (noranzko bietan) doan egin ahaliko dutela iragarri zuen. ■ J.D.

Urki-Hegoaldeko lotura egiteko 15 enpresak aurkeztu dute proiektua

Durangoko PSE-EEK iragarri duenez, "lehenengo faseko lanak apirilean hasita" aurrekusi dute

Durangoko PSE-EEK Hirigintza Batzordean sustatzen ari diren proiektuen gaineko prentsaurrekoa eman zuen atzo eta, iragarri zuenez, Tabira Sabeco inguruko biribilgunea lotuko duen saihebidetako "bultzada erabakiorra jaso du azkeneko hiletan". Sozialisten esanetan, lehenengo tramuko lanak lizitazioan daude eta 15 enpresek aurkeztu dituzte proiektuak. Orain horien artean

Pilar Rios: "Saihebidetako bultzada erabakiorra jaso du azkeneko hiletan"

lanak nori eman erabaki beharko dute. "Hori eginda lanak apirilean hasiko direla kalkulatu dugu", adierazi du Pilar Rios Durangoko PSE-EE alderdiko zinegotziak.

Saihebidetaren lehenengo faseko lanen lizitazioa 907.264

eurokoa da. Asmoa saihebidetako osoa hiru fasetan egitea da; 2011, 2012 eta 2013 urteen artean. Guztira 4,3 milioi euroko inbertsioa eskatuko du. EAJk oraintsu aurkeztu duen aurrekontuen zirriborro-

ko inbertsioen atlean inbertsio nagusi bi zeuden, eta horietako bat, hain zuzen ere, Urki-Hegoaldeko loturari zegokion.

PSE-EEren ustez, saihebidetako Larrasoloeta eta Juan de Iciarreko biribilguneen eta Okarantz ingurutik ibili ohi diren oinezkoen "segurtasuna hobetuko da auto emaria gutxitu egingo delako".

Bestalde, PSE-EEK aurrekontuen zirriborroari ipinitako emendekin batean eskatu du Fray Juan de Zumarraga eta Alluitz artean biribilgunea egitea eta inguru hartako bidegurutzeak berrantolatzea. ■ J.D.



Tabiratik Sabecoko biribilgunera etorriko da saihebidetako.



DURANGALDEA

Inauteriak dira... Heldu da mozorroak janzteko garaia!

Inauterietako martitzena Emakumearen Nazioarteko Egunagaz bat eginda dator aurten

Urte batez mozorroak gordeta eduki ondoren, heldu da armairutik ateratzeko unea. Eskualdean horretarako aukera ugari egongo da.

Durangon, ohikoa bilakatu den legez, Kriskitin dantza taldeko Surrandi eta Hartzaren Konpartsak zapatua girotuko du. Arratsaldeko 18:45ean Merkatu Plazatik

teentzako eta bestea nagusientzako. Iurretan, urtero legez, poteoaren ondoren herri-bazkaria egingo da. Aurten, Olaburu frontoian egingo dute bazkaria. Otxandion, herriko gazte asanbladak eta guraso elkarteak Sorgin gaua antolatu dute. Erdi aroa gai nagusizat hartuta, jaialdia ospatuko dute gaztetxean.

Inauterietako martitzena Emakumearen Nazioarteko Egunagaz bat eginda dator aurten. Hori dela-eta, martitzeneko protagonista nagusi emakumeak izango dira. Hala ere, txikien gozamenarako ere hainbat ekitaldi prestatu dituzte herrietan. Zaldibarren, adibidez, mozorro lehiaketa egongo da goizean; gero, dantzatzeko aukera egongo da Kiroldegian, Bizargorri taldearen eskutik. Durangon, Landako Gunean izango dira txikienentzako ekimenak. Helduek ere izango dute inauteriaz gozatzeko aukera. 18:00etan hasita, ikuskizun musikala dago Duo Twisterregaz adinekoen egoitzan. ■ A.M.

Hainbat mozorro lehiaketa egingo dira: Durangon, Elorrión, Zaldibarren...

Surrandi eta Hartzaren Konpartsak Durangoko kaleak girotuko ditu

abiatuko da herriko kaleak animatuko dituen kalejira. Elorrión, berriz, gazte zein nagusiagoentzako disko-festa egingo dute; Oihan Vega arduratuko da musika jarzteaz. Horregaz batera, bi mozorro lehiaketa egingo dira: bata gaz-

GARAI

Garaitik Durangorako autobus zerbitzuan aldaketak izango dira laster, Aldundiko iturriek jakin eragin dutenez. Hain zuzen ere, autobusaren ordez bederatzi jarlekuko taxi bat ipiniko dute zirkulazioan, Bizkaitaxi izeneko egitasmoaren baitan.

2006an ipini zuten martxan autobus linea hori, eta bezero gutxi dituela-eta garraioz aldatzea erabaki dute, zerbitzua eraginkortzeko asmoagaz. Gontzal Sarrigoitia alkateak aurreratu zuen badirela hileak Aldundiagaz tratu dabiltzala, eta Pilar Ardanza garraio diputatuak konfirmatu zuen Iurretan emandako berbaldi batean. Foru dekretu bat onartu berri dute dentsitate baxuko herrien gainean, eta horrek erraztuko du aldaketa.

Gaur egun, egunean lau irteera izaten dira Garaitik, eta hiru itzulera

Aldunditik argitu digutenez, oraindik ez dago argi noiz ipiniko duten zerbitzu berria, eztabere funtzionamendua zelakoa izango den ere. Bizkaitaxiak aldizkotasan handiagoa eskaini lezake, esaterako. Sarrigoitiak "kotxea beteta badago bajatu edo igo barik inor ez geratzea" eskatu du, "beste kotxe bati deitzeko aukera egon dadila". Gaur egun, egunean lau irteera izaten dira Garaitik, eta bueltako hiru autobus. ■ M.O.

Bizkaitaxi zerbitzua ipiniko dute martxan, autobusaren ordez

Pilar Ardanza garraio diputatuak konfirmatu du, funtzionamendua oraindik zehaztu ez duten arren



Bizkaibusaren ordez Bizkaitaxia ipiniko dute.

ELORRIOKO AUKERA-AUKERAN

POLIKIROLDEGIKO FRONTOIAN

martxoak 11-12

**10:00etatik 13:30era
16:30etik 20:00etara**



ELORRIO

Protokoloa lantzen dabilta ertzainen eta udaltzainen elkarlana hobetzeko

Hilean zehar protokoloaren nondik norakoak aurkeztuko dituztela aurreikusi du Niko Moreno alkateak



Sei udaltzain daude Elorrioren beharrez, hiru txandatan eta asteko zazpi egunetan.

Ertzaintza eta Udaltzaingoa-
ren "lan esparruak definitu
eta elkarren arteko komu-
nikazio sistema hobetzeko" pro-
tokoloa lantzen dabilta Elorrio-
ko Udala eta Barne Saila. Niko
Moreno alkateak azaldu duenez,

martxorako protokoloa aurkezte-
ko moduan egongo dira.

Protokoloa zehazteko herrian
izan diren gertakariak aztertu
dituzte, eta Morenoren esanetan
"datuen arabera, herrian ez da
segurtasun falta hazi".

Niko Moreno:
"Dauzkagun gertakarien
datuen arabera, Elorrioren ez da
segurtasun falta hazi"

ZALDIBAR

Aurten ere emango diete diru-laguntza jaioberrien gurasoei

2009agaz alderatuta, iaz haur kopurua bibidertu egin zen, eta laguntzarako diru kopurua ere bai

Zaldibarko Udala 2006an hasi zen haur jaioberriengatik diru-laguntzak ematen, eta 2011rako ere ekimen horregaz jarraitzea onartu du. Iazko balorazioa egin dute ordezkariak, eta 18.600 euro bideratu zituztela azaldu dute. Hain zuzen ere, 600 euro ematen diete bakoitzari; iaz 31 haur jaio ziren.

2011rako, osotara 18.000 euroko laguntza eskaintzea aurreikusi dute udal arduradunek. Zaldibar eskualdeko lehenengo herria izan zen laguntza hau onartzen; bestalde, diru hori herriko dendetan gastatu behar dela dio legeak.

2011rako, osotara 18.000 euroko laguntza eskaintzea aurreikusi du udalak

Diru-laguntza jaso ahal izateko, bi urtez herrian errolaturik egon eta haurra 2011n eduki behar da

"Familiak laguntzea eta herriko merkataritza dinamizatzea lortzen dugu", azpimarratu du Idoia Mendiagarai alkateak. Ekimen horregaz oso pozik dagoela adierazi du, eta adibide moduan iazkoa ipini du: helburu horretarako aurretik zuzendutako zegoen kantitatea gainditu zen. Espainiako Gobernuak ematen zuen laguntzari erreferentzia eginez, "gaur egun, Zaldibarko herriaren 'umetxo-txekea' desageritu ondoren, diru-laguntza honegaz jarraitzeko ziurtasuna dugu" adierazi du alkateak.

Laguntza jaso ahal izateko, herrian gutxienez bi urtean errolaturik egon behar du onuradunak, eta haurrak 2011n sortua izan.

Jaioberriak, gora

2006an 14 familia lagundu zituzten ekimen honeguz, 2007an 20, 2008an 14 eta 2009an 15. Iaz, berriz, 31 izan ziren laguntza lortu zuten familiak. Beraz, 2009tik 2010era bibidertu egin dira haur jaioberriak eta eskaerak; udala, 9.000 eurotik 18.600 ematera igaro da. ■ M.O.

Gaztetxearen urteurren jaia zapatuan

Zazpi urte egingo ditu bihar Zaldibarko Gaztetxeak, eta hori ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte gazteek. Dena dela, astean zehar hasi dira ekintzak egiten, egitaraua borobilduz. Eguaztenean garagardoa egiteko tailerra izan zuten, edari hau era tradizionalan zelan egiten den ikasteko. Atzo Itsasoaren alaba dokumentala ikusteko aukera izan zuten Gaztetxean; gaur, 16:00etatik aurrera, 4. Graffiti tailerra eta pintxo hotz eta beroen lehiaketa eratuko dituzte.

Karnabalekin bat eginez, mozorrotuta joateko deia egin dute gazteek

Jai nagusia, baina, biharko izango da. Karnabalekin bat eginez, mozorrotuta joateko deia egin dute gazteek, eta 14:00etan hasiko dute jaia bazkariagaz. Postre orduan *El feeling es así* antzezlan ikusiko dute, eta gero familia argazkia aterako dute. Iluntzean tabernaz taberna poteoan ibiliko dira. Amaitzeko, gaueko 23:00etan kontzertuak emango dituzte Disorders eta Joxpa taldeek. ■ M.O.

ATXONDO

Ikasleentzako diru-laguntzak eskatzeko epea hasita dago

Haur eskolatik DBHraino matrikulatuta dauden atxondarrentzako diru-laguntzak eskatzeko epe berria hasi du Atxondoko Udalak. Hilaren 30a arte eskabideak aurkeztu ahalko ditu laguntza jaso gura duenak.

Iazko ikasturterako diru-laguntzak oraintsu onartu ditu udalak; 2.400 euro banatu dituzte. 41 eskari egon dira eta 27 onartu dituzte, beste 14 eskatzaileen errentek baldintzetan jarritako muga gainditzen zutelako. Aurtengo diru-laguntzetarako muga hori % 10 altxatuko dute la azaldu du David Cobos alkateak, "horrela jende gehiagoren gana heltzeko".

Ortu ludikoak

Iurretan egin duten legez, Atxondon aisialdirako ortuak ipintzekotan daude, eta bertan jardun gura duenak izena emateko aukera dauka martxoaren 19a arte.

Aurreinskripzio lako bat izango da orain egingo dutena, ortuetan zenbat jende parte hartuko lukeen jakiteko. Horren arabera, baratzeak atontzeko kokapen biren artean aukeratu dute; igerilekuen alboan edo Markoia eta Bentabarri tarteko lursailean. ■ A.U.

OTXANDIO

"Bisitari asko" izan du Neberaren erakusketak

Eguraldi txarra eginagatik, herritar asko hurreratu zen bolatokira; baliteke domekan berriro zabaltzea



Asteburu osoan zehar egon zen erakusketa ikusgai.

Eguraldi txarrari aurre eginez, "herritar asko" hurreratu zen joan zen asteburuan bolatokian antolatu zuten Neberaren gaineko erakusketara. Erakusketa argazki bilduma batek eta sasoi bateko lan tresnek osatu zuten: "Izotza alde batetik bestera garraiatzeko erabiltzen zen asto baten

kartoizko erreplika bat ere ipini genuen", dio Txomin Bengoa kultura zinegotziak. Bisitari askok adierazi zuten erakusketa beste noizbait ere antolatzearen komenentzia. "Zapatua ez da egun egokia inauteriak ospatuko direlako, baina baliteke domekan berriro zabaltzea herritarrentzat". ■ J.D.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



 <p>2 UITS</p> <p>1000 b/min 6 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA SUNNY 610 295 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1000 b/min 6 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA WAE20010EE 345€ </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1200 b/min 6 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA WM12E221EE 375 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1200 b/min 6 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA IWC 6125 275 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1000 b/min 8 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA WAQ20361EE 435 € </p>
 <p>2 UITS</p> <p>1200 b/min 8 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA F-2812 455 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1400 b/min 8 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA L-74950-A 545 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>7 kg</p> <p>B Saikapen energetikoa</p> <p>LEHORGAILUA T-56840-L 435€ </p> <p>KONDENTSAZIOA</p>	 <p>2 UITS</p> <p>7 kg</p> <p>B Saikapen energetikoa</p> <p>LEHORGAILUA WTE8631 PEE 475 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>ONTZI-GARBIGAILUA LJ-043X 360 € </p>
 <p>2 UITS</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>LABE PIROLITIKOA HB-73AR521 899 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220 950 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1850 X 600 X 600</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>NO FROST HOZKAILUA KG36NX03 450 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>1850 X 600 X 600</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>NO FROST HOZKAILUA KG36N73 545 € </p>	 <p>2 UITS</p> <p>GARBIGAILUA ROOMBA 531 370 € </p>

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
 Zatoz eta ezagutu galtzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

			
ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MERKAPAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU	+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

DIURRETA

Etxebizitzak eta Larrakozelaiko proiektua, aurtengo egitasmoak

8.432.000 euroko aurrekontua onartu du asteon lurretako Udalak



Zerrategia lekuz aldatuta, 62 etxebizitza eraikiko dituzte.

Laz baino ia milioi bat euro gutxiagaz ekingo dio lurretako Udalak 2011ri. 8.432.000 euroko aurrekontua onartu dute, EAJren eta EBren botoekin. Beste alderdiak abstenitu egin dira. Iñaki Totorikaguena alkatearen esanetan, "egoera ekonomikoari egokitutako aurrekontuak dira, udalak arnasa hartzeko bideratuak".

Etxebizitzen proiektuak erredaktatu dituzte, eta lursailetan dagoen kutsadura kenduko dute aurtan

Etxebizitzen urbanizazio proiektuak inbertsioen zati handi bat hartuko dute. Bideondon, Paduretán eta Fundiguelen lehengo lurretan etxebizitzak eraikiko dira datozen urteotan. Udalak 710.000 euro bideratu ditu lursail horien kutsadura kentzeko, eta urbanizazio proiektuak eurak garatzeko.

Lurreko kutsadura kentzeko beharren menpe daude etxebizitza proiektuak hasteko datak. Paduretán 300 etxebizitzatik gora eraikiko dituzte; 240 prezio librekoak eta 60 tasatuak. Fundiguelen lehengo lurretan, berriz, 84 etxebizitza eraikiko dituzte. Bideondon 62 etxebizitza egiteko asmoa du udalak, zerrategia futbol zelai alboran errotan eta gero.

Iazkoekin alderatuta, gizarte ongizaterako eta kulturarako laguntzak ia ez dira aldatu. Egitasmo berriei dagokienez, aurtan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari ekingo diote lurretako Udalak, eta 13.000 euro bideratuko dituzte horretarako.

Kiroldegia

Aurtan Larrakozelain kiroldegia egiteko lursailak eskuratu eta proiektua erredaktatzeko asmoa dauka udalak. Horretarako 1,24 milioi inbertituko ditu. Neurri horrek ez du alderdi guztien oniritzia izan. PSE-EEko Marian Muñozek proiektua orain garatzea gaitz ikusten du: "Duela hamar urte baino gehiago egin zen proiektuaren antzera, honek ere zaharkituta geratzeko arriskua dauka". PPko Cipriano Ramosek ere antzera adierazi du: "Ez da proiektua aurrera ateratzeko garaia". Fernando Borjaren ustez, "etorkizunean egin ahalko da, baina orain udala hipotekatzea litzateke". ■ A.U.

PROIEKTUAK

- Kiroldegia egiteko lurrak lortzea**
870.000 euro
- Kiroldegia proiektua erredaktatzea**
370.000 euro
- Bideondoko urbanizazio proiektua**
350.000 euro
- Uren hornidura Orozketan**
350.000 euro
- Paduretako urbanizazio proiektua**
300.000 euro
- Santa Apolonia urbanizazio proiektua**
50.000 euro

DI MAÑARIA

Maiatzeko Aste Kulturalerako proposamenak egiteko deia

Udalaren Kultura Sailak maiatzeko antolatzen duen Aste Kulturalaren egitaraua osatzeko, herritarrak euren ekarpen eta proposamenak egitera gonbidatu dituzte. Aste Kulturalaren egitarauaren barruan hartzeko proposatu dituzten ekimenak, ideiak eta proposamenak apirilaren 1a baino lehenago kultura.manaria@bizkaia.org helbidera bidaltzeko deia luzatu diete herritarrei.

Argazki erakusketa

Maiatzeko Aste Kulturalaren inguruan antolatu izan duten argazki lehiaketaren ordez, herritarrek egindako argazkien erakusketa sustatu dute azkeneko urteotan, eta [Emakumea](mailto:Emakumea@bizkaia.org) hartuko dute aurtengo erakusketarako gaitzat.

Udaberriko Aste Kulturalaren barruan argazki erakusketa antolatu gura dute

Herritarrei deialdia luzatu diete, emandako gai horren inguruan egiten dituzten argazkiak, bertan agertzen direnen baime nagaz, udalean aurkeztu ditzaitez. Udaletxean edo liburategian zein Kultura Sailaren kultura.manaria@bizkaia.org helbidean jasoko dituzte argazkiak, apirilak 31 arte. ■ I.E.

DI MALLABIA

Gerediaga elkarteko bazkide egin da udala

Lankidetzaren hitzarmena sinatuta, esaterako, Gerediagaren argitalpenen aleak jasoko dituzte

Mallabiko Udalak eta Gerediaga elkarteak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute oraintsu. Aitor Loiola alkateak eta Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkarteko lehendakari Nerea Mugikak

Gerediagak hainbat ekintza antolatzen ditu, eta horietako bat Mallabian izan dadin saiatuko dira

Elkarteak kaleratzen dituen argitalpenen ale bi ere jasoko ditu udalak liburategian

sinatu zuten akordioa. Horrela, Mallabia Gerediagako bazkide babesle bilakatuko da, eta 2011. urtean 1.500 euroko laguntza emango dio. Ordainetan, Gerediaga elkarteak hainbat zerbitzu eskainiko dizkio udalari.

Esaterako, Gerediaga elkarteak agortu barik dituen argitalpenen bilduma osoa eskainiko dio udalari, eta eskuragarri ipiniko dute liburategian. Horrez gain, elkarteak aurrerantzean kaleratuko dituen argitalpenen ale bi ere jasoko dituzte liburategian.

Horrez gainera, Gerediagak hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar, eta horietako bat Mallabia elizatean izan dadin ahalginduko da, hitzarmenak jasotzen duenez. Era berean, ekintza orokor horien berri antolatu ahal jakinaraziko dio udalari.

Udalekin hitzarmenak

Gerediagak Durango Merinaldeak mendeetan zehar izandako erakunde propioen eraginez sortutako lurralde nortasuna sendotzea eta berreskuratzea du helburu. Mallabia da horietako elizate bat, eta hitzarmenaren bitartez alde bien arteko koordinazioa sortu eta zehaztu gura izan dute. ■ J.D.

DI ABADIÑO

EAJ: "Gardentasun eta proiektu falta dira laburpena"

Legegintzaldiari eta gobernuaren kudeaketari buruz jardun zuten jeltzaleek atzoko agerraldian

Legegintzaldiaren balorazioa egiteko batu ziren Zelaietako Batzokian prentsaurrekoan, atzo, hiru zinegotzi jeltzale. Urteotan EAJren bozeramaile izan den Axier Garate zinegotziak egin zuen balorazio orokorra; "gardentasun, informazio eta gobernuaren egitasmorik eza eta zentzugabekeria" dira, bere berbetan, udal gobernuaren jarduna definitzen duten berbak.

Udal gobernuaren urteak eman ondoren, EAJk "oposizio eragoztailea egiteko asmorik ez" zeukala dio Garatek: "Negoziaziorako eskua luzatuta ekin genion legegintzaldiari; ondoren kendu egin

A.Garate: "Nekazalguneak ahaztuta utzi dituzte legegintzaldi osoan"

Udal gobernuaren lau urteotako jarduna kritikatu zuten EAJko hiru zinegotziak



Sendino, Garate eta Larrauri, atzoko prentsaurrekoan.

behar izan dugu". Talde Independententeak herriko "auzune batzuetan bakarrik" jardun duela eta "nekazalguneak ahaztu" dituela salatu du, besteak beste, Garatek.

Besteak beste, hirigintza eta mendien batzordeetan EAJren ordezkaria izan den Sendinok, bestalde, legegintzaldi honetan Urkiolako parkearen inguruan behin ere ez dutela jardun eta gobernuak batzordeok oso gutxitan deitzen dituela kritikatu du.

Oposizioan zeudenean Independententeek jeltzaleen kontra zabalduzako "difamazioez" eta gaurko "koherentzia ezaz" arituzen Larrauri zinegotzia. ■ I.E.



Durangaldean labor

'Bidaiatu Tan Tan Tan'-en bigarren edizioa martxan da

Bidaien gaineko hitzaldi zikloa atzo hasi zen Abadiño Txanporta kultur etxean. Eskualdeko eta inguruetako herritarren ahotik munduari egindako birak, belaontziz egindako bidaiak eta Tailandiatik egindako bidaiak ezagutu ahal dira hile honetan; eguenean, 19:00etan. Apirilean ere jarraituko du zikloak. Programa osotzen dabilta eta oraindik hitzaldiak emateko izena eman daiteke.

14.000 lagun inguru Durangoko Aukera Azokan

+Dendak elkarrekin joan zen asteburuko Aukera Azokaren balantze "oso positiboa" egin du. 14.000 lagun pasatu dira aurten azokatik. Eguenei dagokienez, bariku eta zapatu arratsaldean izan ei dira jendetsuenak. Domekako eguraldi txarrak eragina izan zuela uste dute antolatzaileek. "Krisia igarri" den arren, "ondo saldu" dela adierazi dute.



Portalekuak antolatuta, txarriboda

Asteburuan txarriboda izango dute Elorrioren, Portalekuak antolatuta. Bihar 20:00etan bertso-poteoa egingo dute tabernetan Unai Iturriaga eta Igor Elortzagaz. Mozorrotuta joateko deia egin dute, bai poteora bai ondorengo bertso-afarira ere; 21:30ean Alkartun da hitzordua.

IZURTZA

Ehundik gora izurtzarrek eman zuten iritzia herri galdeketa

"Herritarren %40 inguruk parte-hartzea datu oso ona da", diote Udalean



Domekan parte hartzerik izan ez zutenek eguaztenera arte eman ahal izan dute botoa.

Herriko ordenamendua zehazten duten arauak berrikustea ekarriko duen prozesuaren barruan, etorkizuneko Izurtzari buruzko euren iritzia eman zuten 102 herritarrek domekako herri galdeketa.

Otsailaren 27ko galdeketa-ko deialdia zabaldu duen Ezker Abertzaleko gobernua, "oso positibotzat" jo du ekimena: horrelako galdeketa batean "herritarren %40k parte hartzea datu oso ona da", Iker Ballarinen berbetan.

Domekako bozketan parte hartzerik izan ez zutenek eguaztenera arte izan dute euren botoa udaletxean emateko aukera. Atzo botoak zenbatu ondoren, datozen orduetan jakinaraziko ditu udal gobernua emaitzak. ■ I.E.

Alokairurako diru-laguntza arautzen duen ordenantza

Aho batez onartu dute udalbatzarrean alokairua ordaintzeko laguntza arautuko duen ordenantza

Dagokion udaleko batzordean, antzeko ordenantza bat indarrean duten inguruko herrietako ordenantzak Izurtzako baldintzetara egokituz osatu dute arategia Ezker Abertzaleko eta EAJko ordezkariak.

Eskatzaile bakoitzari 250 euroko diru-laguntza emango dio udalak, gehienez

Aurtengo aurrekontuetan alokairuan bizi diren herritarrei laguntza legez eskaintzeko 10.000 euroko diru-atala gorde dute, eta kopuru hori zer baldintzaren arabera banatuko duten zehazten du aho batez onartutako ordenantza.

Eskatzaile bakoitzari 250 euroko laguntza esleituko dio udalak, gehienez, eta azkeneko bost urteetan herrian erroldatuta egotea da baldintzetako bat; eskatzailearen urteko irabazien kopurua ere hartuko dute diru-laguntza banatzeko orduan kontuan. ■ I.E.

BERRIZ

Hilaren 21a arte eman daiteke Kiroldegiko ikastaroetan izena

Apirilaren 4an hasiko dira ikastaro berriak, eta bederatzi jardura eskainiko dituzte aukeran

Berrizko Udalak kiroldegiko ikastaroetan parte hartzeko aukera eskainiko du berriro, apirilaren 4tik aurrera. Horretarako izena ematea posible da dagoeneko; hilaren 21a da azken eguna.

Martxoaren 21ean eskaera guztiak jasota, 22an zozketa egingo lukete, beharrezkoa balitz. Batera edo bestera, hilaren 23an argitaratuko dituzte emaitzak. Ikastaroetan parte-hartzea konfirmatzeko ordaindu egin behar dute zortedunek, martxoaren 30a baino lehenago.

Ordainketa martxoaren 30a baino lehenago egin behar dute parte hartu gura dutenek

"Zahartzte ederra" ikastaroa
Bestalde, kiroldegitik aparte, 60 urtetik gorako emakumeen zailtasunak identifikatu eta horiei aurre egiteko baliabideak aurkitzeko hausnarketa saioak hasiko dira hilaren 15ean. Ordu biko zortzi saio izango dira martitzeno, 17:00etatik 19:00etara, Kultur Etxean. ■ M.O.

Berrizburun egingo dituzten ikastaroak bederatzi izango dira: igeriketa, ciclynga, gimnasiak, pilates, aerobic/step, batuka, batuka txiki, kaloriak erretzea eta Integral fit. Askotariko estiloak daude aukeran, beraz.



'Kirolari ateak zabalik' jardunaldiko momentu bat.

A. Urreta podologia

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODÓLOGA 188. Eikargokidea

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

Betikoak flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

BERBAZ >

“Lege berriekin Mallabiko auzuneetan ezingo da erdigunerik garatu”

Lau urtean egindakoagaz pozik dago Mallabiko alkatea; “mundu guztiak bizi beharreko esperientzia da udalekoa”, dio.



Aitor Loiola •

- Mallabiko alkatea
- Lanbidez irakaslea da

“Herriko erdaldunek euskara ikasteko premia sortu behar dugu”

kalean ere eraikiko ditugu, bigarren fase baten. Beti ere eskariari erantzuteko neurrian eraikiko ditugu. Udalak etxebizitza tasatuak bultzatuko ditu beti, kooperatibei ateak itxi barik. Udak etxebizitza tasatuak eraikitzean, gaur egun, 15 edo 25 urte pasatu eta gero babestutako etxe horiek merkatu libreran pasatzen dira, eta udal babesa galtzen dute. Guk proposatzen duguna da babes hau betirako mantendu dezatela, beti etxebizitza tasatuak izaten jarraitu dezaten. Horrela espekulazioa saihestuko litzateke.

Zelako esperientzia da zuretzat Mallabiko alkate izatea?

Pila bat ikasi dut; oso aberatsa da. Egindakoagaz oso pozik nago. Aholkulariak hor egon dira, asko lagundu digute, eta ez gara bakarrik sentitu. Mundu guztiak bizi beharreko esperientzia da udal barrukoa. Sufritu ere asko sufritzen da. Lehen herrian ez zegoen inor langabezian, eta orain 47 pertsona daude. Gogorra da beharrezan dauden familiak daudela jakin eta euren gura beste ezin heltzea.

Zer iritzi daukazu Ezker Abertzaleak bizi duen egoeraz?

Zortzi urte ilegalizatuta, zuzendaritza espetxean... Zer alderdi da gai hori jasan eta jarraitzeko? Ikaragarria izan da. Momentu itxaropentsu hau sortzeko gai izan gara, batzarrak egin eta ildo berrietara jotzeko. Oso itxaropentsu nago. Maratoia da hau, eta epe luzera begiratu behar dugu; hauteskundeetan itsutu barik, hori garrantzitsua bada ere. Ea apurka normalizaziora goazen. ■ A.Ugalde

Lau urte hauetan asko ikasi duela dio Aitor Loiola Mallabiko alkateak. Bizkaiko Aldundiagaz, Gipuzkoakoagaz, udal euskaldunekin, eta, zelan ez, herritarrekin eurekin ere bai.

Hirigintza Plan Orokorra osatzen ibili zarete Mallabian. Horretarako Aholkulari Batzordea sortu duzue. Zelako prozesua izan da? Oso aberatsa. Jendeak beldurra zeukan parte hartzeko; hirigintzak beldurra ematen dio jendeari. Konturatu dira ekarpen guztiek euren garrantzia dutela, eta horrela jasoko direla. Pentsamendu askotako jendea hainbeste eratako kontuetan ados jartzea oso aberatsa da. Orain herri osora zabaldu behar da egindakoa; udalbatzarrean aurreplana onartu eta erakusketa eta hitzaldiak antolatuko ditugu, plana ekarpenekin aberasteko.

Zer aldaketa aurreikusi ditu plan horrek?

Arau berriak direla-eta, auzoetan, adibidez, ezingo dira erdiguneak garatu. Mallabian baserriak oso sakabanatuta dauzkagu, eta gaur egun ezagutzen ditugun nukleoak ezingo dira mantendu, legedi berriak dioelako nukleo bat gutxienez bost baserri osatzen

dutela plaza edo gune publiko konpartitu baten inguruan daudenean. Baserria 1950 aurretik egindako etxea dela definitzen du legeak. Oso gaitza da Mallabian orduko bost baserri elkarren ondoan topatzea, eta nukleo berriak ezingo dira egin.

Ingurumen arloan Udalsarea 21 saria jaso du udalak, Goitondorako prestatu duzuen egitasmoagatik. Zelako proiektua da?

Goitondo Debabarreneko poligonorik handienetakoa da. Debege-sak, Arrasateko Unibertsitateak, EHUK eta udalak ekosistema industrial sortzeko plana egin dugu. Hainbat alorretan behar egingo dugu: euri-ura aprobetxatzeko egitasmoa, eguzkiaren argia eta energia aprobetxatzeko, ekologe... Lantegien artean kamioiak konpartitzeko zer aukera dauden ere ikusi gura dugu. Gauza batzuk martxan daude, eta Jaurilaritzaren eta enpresen kon-

“1.100 biztanle gara. Aldundiek dena errentagarritasunaren arabera kalkulatu badute, Mallabian farolak ere ez dira errentagarriak”

promisioa beharrezkoa izango da. Gero beste poligono batzuetan aplikatzeko aukerak egongo dira.

Udala UEMAn dagoenetik euskararen gainera hainbatekimen irten da. Zelako erantzuna daukate?

Izenak euskaraz erregistratzeko deialdiagaz, adibidez, deia egin eta jaio diren hurrengo hiru egunak euskaraz erregistratzeko eskatu dute. Kontzientziazio arloan, baina, badago zereginik. Mallabian euskaraz bizi denak ez du beharrik ikusten urraketak salatzen. Negozio batzuek propaganda erdara hutsez ateratu dute, baina inor ez da etorri salatzen. Ez dira kontziente hori ere euskaraz egin daitekeenik. Erdaldun bat gure artean dagoenean erdarara jotzeko ohitura ere hor dago. Herriko erdaldunek euskaraz egiteko premia sentitu behar dute. Badirudi apurka-apurka hori aldatzen dabilela; euskara ikasten talde bi dauzkagu herrian. Orain dela lau urte bat ere ez zegoen.

Herriko eskaeretakoa bat Trabakuko pasabidea da. Gai horri buruzko aurrerapausorik badago?

Trabakuko errepidea berriztu zutenean, orduko alkateak pasabidea agitea planteatu zuen Aldundian, baina garestiegia litzatekeela esan zuten. Azken lau urteotan eskariagaz sarri jo dugu Aldundira, eta hiru bider landu da gaia Batzar Nagusietan. Dena errentagarritasunaren arabera kalkulatu izan dute, erabiltzaile kopuruaren arabera. 1.100 biztanle gara, eta dena erabiltzaileen arabera kalkulatu badute, herrian farolak ere ez dira errentagarriak. Pasa den udazkenean, azkenean, pasabidea egitea onartu zuten. Talde guztiek alde bozkatu zuten, eta EAJ abstenitu egin zen. Ea noiz egin duten.

Zer egitasmo duzue esku artean?

Plan orokorraz gainera, etxebizitzak eraikitzeko asmoa daukagu. Kalbarixo kalean 36 etxebizitza egitekotan gaude, eta San Roke

“Eskariari erantzuteko neurrian eraikiko ditugu etxebizitzak”

Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21
 Konfiantzaren balioa **piso on**

zure neurrira egokitutako konfiantzazko irtenbideak

DURANGO Erref. 002-997
 ▶ **149.652€ (24,9 milioi)**



Erdi berriztatutako etxebizitza berogailuarekin. Leihoak aldatuta, sukalde handia 2 logela bikoitz eta komuna. Orain gutxi erreformatutako portala. **AUKERAKO!**

ELORRIO Erref. 002-993
 ▶ **176.187€ (29,3 milioi)**



3 logela bikoitz, bi komun, egongela handia eta sukaldea despentsarekin. Guztiz jantzia. **SALTZEKO PREMIA!**

IURRETA Erref. 002-1227
 ▶ **179.702€ (29,9 milioi)**



Berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **ZATOZ IKUSTERA!**

ASTARLOA Erref. 002-1228
 ▶ **198.334€ (32,9 milioi)**



3 logela berogailuarekin, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. **Ganbara.**

DURANGO Erref. 002-1140
 ▶ **199.000€ (33,1 milioi)**



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona. **BERRIA DIRUDI!**

MIKELDI Erref. 002-1276
 ▶ **204.344€ (34 milioi)**



Etxebizitza altua igogailuarekin. Eguzkitsua. 4 logela, sukalde handia, komunak eta egongela balkoiarekin. **EZ GALDU AUKERA HAU!**

ASKATASUN ETORB. Erref. 002-1270
 ▶ **210.354€ (35 milioi)**



Berriztatutako etxebizitza. Igogailua. 2 logela bikoitz, egongela handia eta sukaldea. **AUKERA! HILEKO ETXEBIZITZA!**

KOMENTUKALEA Erref. 002-1235
 ▶ **216.364€ (36 milioi)**



Igogailua duen etxebizitza. Berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. **ZATOZ GUREKIN IKUSTERA!**

SAN FRANZISKO Erref. 002-1250
 ▶ **222.374€ (37 milioi)**



Etxebizitza eguzkitsua ikuspegiekin. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta balkoia. Trastelekua. **BIZITZEKO EGOKIA!**

SASIKOA Erref. 002-882
 ▶ **231.389€ (38,5 milioi)**



Orientazio oneko pisua. Eguzkitsua. 15 urte ditu. 2 logela eta berogailua. **EZ GALDU AUKERA HAU! SALTZEKO PREMIA!**

ABADIÑO Erref. 002-1144
 ▶ **240.404€ (39,9 milioi)**



Beheko solairua 160 m²-ko terrazarekin. 4 urte. 2 logela, garajea eta trastelekua. **BERRIA DIRUDI! SALTZEKO PREMIA!**

BERRIZ Erref. 002-1233
 ▶ **258.435€ (42,9 milioi)**



3 urteko aintzinasuna duen etxebizitza. 3 logela bikoitz eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. **AUKERA ONA!**

ERROTARITXUENA Erref. 002-1274
 ▶ **278.000€ (46,2 milioi)**



Estreinatzeko. 2 logela bikoitz, 2 komun, sukaldea balkoia eta eskegitokiarekin, eta egongela handia terrazarekin. **ZATOZ IKUSTERA! ZURE ETXEBIZITZA BERRIA IZAN DAITEKE!**

MURUETA TORRE Erref. 002-1204
 ▶ **309.521€ (51,5 milioi)**



8 urte dituen etxebizitza. Eguzkitsua. 2 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea balkoiarekin. **Garajea eta ganbara. PAREGABEA!**

SAN IGNAZIO Erref. 002-1188
 ▶ **312.526€ (52 milioi)**



14 urte dituen etxebizitza. 90 m². 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela. **Ganbara eta garajea. AUKERA ONA!**

HERRIKO GUDARIEN Erref. 002-1230
 ▶ **336.566€ (56 milioi)**




90 m² duen etxebizitza. Eguzkitsua. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela zabala eta sukaldea. **Garajea eta trastelekua. ERDIALDEAN KOKATUA!**

MARTXOAREN 8KO Erref. 002-1243
 ▶ **365.235€ (60,76 milioi)**



2 urteko aintzinasuna duen pisu eguzkitsua. 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela zabala. **Garajea itxia. OSO PISU ONA!**

ELORRIO Eraikuntza berria



2 logela trastelekuarekin 177.000 euro, 3 logela trastelekuarekin 227.500 euro, 4 logela trastelekuarekin 283.000 euro, etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. **Garajeak aukeran. ERAIKITZAILEAREN ZUZENEKO PREZIOAK! ETORRI! PISO ON-eral!**

ABADIÑO Eraikuntza berria



Beheko solairuak 2 logela eta terrazarekin. **Garajea eta trastelekua. 214.881 eurotik aurrera (BEZA barne). 3 logelako etxebizitzak garajea eta trastelekuarekin, 352.231 eurotik hasita (bez barne). ERAIKITZAILEAREN ZUZENEKO PREZIOAK. AUKERA ONA!**

3 LOGELA, IGOAILUA, GARAJEA, TRASTELEKUA ETA GANBARA DITUZTEN ETXEBIZITZAK BILATZEN GABILTZA. EROSLEA BADAUKAGU!



Konfiantzaren balioa **piso on**.com
 zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko lehen inbiliaria sarea



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Euskal gazteriaren aldeko adierazpena

Ohikoa bihurtu da gauez etxera indarrez sartu eta gazte independentista bat Madrilerara eramatea. Ohikoa bihurtu da inkomunikatuta hiru, lau, bost egun pasa ostean, gazte horrek tortura latzak salatzea. Ohikoa gazte horietako asko espetxeratzeta. Ohikoa sarekada batean lortutako izenak komenigarria den une politikoan erabiltzea, sarekada berriak egiteko.

Bada, LAB osatzen dugun gizon-emakumeok ez gaude prest horrelako basakerietara ohitzeko. Gaur eta hemen, euskal gazteriaren kontrako jazarpen estrategia ankerra salatzen dugu.

PSOEk diktaduren manualak erabiltzen ditu gure herriko gazteen kontra, lan politikoa egiten duten lagunen izenekin zerrenda beltzak osatuz eta modu honetan gazteen artean terrorea zabalduz. PSOEek bortizkeria poliziala erabiltzen du helburu politiko ustelak lortzeko. Batetik, jazarpenaren bidez gazteria independentista desaktibatu nahi du, gazteria izan baita eta egun ere bai baita herri honen motore garrantzitsua, herri honen etorkizuna. Bestetik, prozesu demokratikoa zapuzteko eta desitxuratzeko helburuz, Espainian eraginkortasun polizialaren irudia saldu nahi du. Bada, PSOEri exijitzen diogu gazteen kontrako biolentzia eten dezan. Sarekadak gelditzea, inkomunikazioa bertan behera uztea, zerrenda beltzak ezabatzea.

Bestalde, azken hilabeteetan Hego Euskal Herrian buruturiko sarekaden ondorioz Segi gazte antolakundeko hainbat militante Ipar Euskal Herrira heldu dira, tortura arriskua ekiditeko asmoz. Eta, Segi Frantziako estatuan legala bada ere, euroagindua aplikatu eta Espainiaratuak izateko arriskupean daude unetan. Prozedura hori bertan behera gera dadin exijitzen dugu.

Amaitzeko, geure babesa adierazi nahi diegu euskal gazte independentistei, bai espetxean direnei, bai zerrenda beltzetan daudenei, bai euroaginduaren kontra protestan ari diren kideei. Gazteok: zuen ondoan borrokatzeko prest gaituzue.

Durungaldeko LAB

AHTak arriskuan jartzen du gure osasuna

Aurreko astean, AHTaren aurkako desobedientzia zibila bultzatzen duen Mugitu! Mugimenduak salaketa ekintzak egin zituen Euskal Herriko hainbat anbulatorio eta ospitaleren aurrean; tartean, Zornotzan. Horren bidez, gure osasuna zaintzeko izan beharko lukeen diruaren zati bat AHTa egiteko gasatzen dutela salatu nahi izan genuen M!Mtik.

Gasteizko eta Iruñeko gobernuek Osakidetzan eta Osasunbidean zerbitzuak murrizten dituzten bitartean, AHTaren txikizioan milaka milioi euro xahutzen dituzte. Lakuak 260 milioiko murrizketa egin zuen Osakidetzan 2010ean, eta aurrekontuetan, hain zuzen ere, 275 milioi euro bideratu zituen "Euskal Y"-a eraikitzeko. Kontuak ezin argiago: gure osasuna zaintzeko kentzen duten kopuru berbera eta gehiago gure lurra txikitzeko.

Eta ez hori bakarrik. Azken hileotan, Gasteizko agintariak 1.000 milioi eurotik gorako gastuak kontratatu dituzte AHTaren Gipuzkoako zatiak eraikitzeko. Baina, bitartean, murrizketa itzelak osasunaren arloan: zapatuetan 46 osasun zentro eta anbulatorio itxi dituzte, Araban ospitale bat kentzeko asmoa dute, ospitaleetan goardiako medikuntza zerbitzuak murriztu dituzte, zenbaitetan ez dituzte ordezkatu baja eskatu duten osasun arloko langileak...

Eta betiko moduan, murrizketa horien guztien ondorioak geuk jasaten eta ordaintzen ditugu. Ez diezaiegun utzi AHTa gure osasunaren kontura ordaintzen!

Mugitu! Mugimendua

Sei hankako mahaia



Sergio Murillo
EAJ

Durango 2010 behetik gora

Foru eta udal hauteskundeetan atarian gagozan honetan, eta maiatzaren 22a hurbilegi izan baino lehen, alderdi politikoe-tako ordezkariak eskaera xume bi egin gura neuskiez; batetik, etorkizuneko Durango marrazten lagundu daie, eta, bestetik, bete ezin dabenik zin ez egiteko.

Hasteko, adibide izan gura geunke EAJtik. Etorkizuneko Durango barri bat eraikitzeko atarian gagoz, kasu honetan, goitik behera barik, behetik gora. Bai, behetik gora haziko da Durango 2020ra begira. Tre-na lurperatzeak goitik behera itxuraldatuko dau herria. Egund, lubaki baten antzera, trenbideak herria zeharkatzen dau eta ordu laurdenero guztiz geldiarazi. Etorkizunean horrela izan ez daiten nahi dogu.

"Hasi lurpetik eta argitarantz begira, geltoki barri batek emoten deust ondo etorria Durango barrira. Ikuspegi ederra alde banatan; haranean behera, garai bateko hiltegia edegiten zan tokian zentro zibiko barria dakusat, bertan auzotarrak solasaldian egon eta gero, bizikletaz, trenbide zaharreko pasealekutik eraikin barritzaile eta barrien artean, San Fausto auzora heldu naz. Honek be, auzo bizitza oparoa daukie; frontoia eta zentro zibikoa, biak hala biak eraikin dotoreak. Atsedean hartzeko leku ederra Durungaldeko mendietara begira. Garai batean kotxeak baino ez ziran ikusten auzo honetako kaleetan, gaur umeak alai jostatzen dira".

Horrela irudikatzen dogu Durango EAJkook; bizitzeko, gozatzeko Durango barria behetik gora!

"Etorkizuneko Durango barria eraikitzeko atarian gagoz, kasu honetan, goitik behera barik behetik gora"

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten ize-
nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2011ko martxoaren 4a - 9. urtea - 406 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA

MUSIKA > ELKARRIZKETA



Asier Gozategi: "Trikitiak nortasuna irabaztea lortu du azken urteotan"

Bost taldekidek inguratuta jardungo du bihar Durangoko Plateruenean **Asier Gozategi**. Inauteriak ospatzeko ikuskizun berezia prestatu du Gozategi Gurrutxaga, Sarriegi eta Sukia bertsolariekin elkarlanean; taldearen kantak eta bertsoak uztartuko dituzte inauteri gaueko jaietan. Asierrek egin digu berba ikuskizunaz eta taldeaz

Jai berezia antolatu duzue zapaturoako. Kontzertuaz gainera, zer da prestatu duzuen?

Inauteria denez, mozorro festa da martxoaren 5eko Platerueneko emanaldirako antolatu duguna. Taldekideez gainera, hiru bertsolari ere izango ditugu geugaz ohol-tzan: Iñaki Gurrutxaga, Xabier Sukia eta Aitor Sarriegi.

Honen antzeko beste ikuskizunik antolatu duzue lehenago?

Bertsolariekin triki-bertero saioak antolatzen ditugula urteak dira, baina mozorrotuta egingo dugun lehenengo aldia da hau. Iñaki eta Xabier oriotarrak dira, ni bezala, eta Aitorrekin ere urteak dira harremana daukagula. Lehenago Bilbon eta Gasteizen egin izan ditugu bertsolariekin saioak.

"Iñaki Gurrutxaga, Aitor Sarriegi eta Xabier Sukia ere igoko dira oholtzara"

Zelan antolatu duzue bertsolariekin emanaldia?

Emanaldiaren hasieran bertsolariek egingo dute ikuskizunaren sarrera, gero erreperoriooko abesti batzuk joko ditugu guk, eta aurretik aukeraturiko doinuekin elkarrekin ere jardungo dugu.

Kontzertuko erreperorioa 2010ean kaleratu zenuten 'Bizi-bizirik' diskoan oinarrituko da?

Bai, baina erreperorioan abesti berriaketa aurrekoak, denak uztartzen ditugu: lehenengo diskoetako abestiak ere jotzen ditugu.

Jo barik utzi ezin dituzuen abesti batzuk ere egongo dira...

Horrela da, bai: badaude abesti batzuk ezin ditugunak zuzenekoetatik kanpora utzi; *Nor nori nork*, *Nirekin*, *Astelehena bihar* edo *Korrika korrika* kontzertu guztietan jotzen ditugu.

Zer aldaketa ekarri du 'Bizi-bizirik' disko berriak?

Asko antzematen da, esaterako, metalen aportazioa. Musikari iku-

"Abesti batzuk ezin dira zuzenekoan falta: 'Nor nori nork', esaterako"

tu gogorrago ematen diote, baina leuntasuna emateko ere balio dute haizeko instrumentuek. Lan egiteko modua ere berria izan da guretzat disko honen grabazioan; David Nanclares eta Asier Ercillagaz elkarlanean jardun dugu, eta nabari da disko honen grabazioan beste atrebentzia puntu bat.

Hamabost urte musikagaz gozatzen eta *Bizi-bizirik*

Gozategi sortu zeneko "berritasun" hura barik sortzen diren talde berriek, beharbada, gaitzago daukatela aurrera egitea dio Asierrek, baina baikor sumatu dugu: "Beste kontu bat da garaian garaiko aitzakiak bilatzea batzuek; dela krisia, dela beste zerbait...". Talde dezente eta onak daudela nabarmendu du. Hamabost urteotan, hazi egin da taldekide kopuruari dagokionez Gozategi.

Asierrek gogoratu duenez, hasi zirenean, handik 10-12 urtera taldeak bizirik irautea erronkatzat zeukan, eta bete dute helburu hori. Bestetik, taldean "metalak sartzeko gogo" izan dutela beti kontatu digu Asierrek, eta *Bizi-bizirik* izenagaziaz kaleratutako seigarren diskoan haize-instrumentuen metalen atala sartu dute: Orioko tronpetajotzaile bi ikusiko ditugu Gozategigaz eszenatokian.

Disko berrian ere hain ezagun egin ziren Gozategiren hasierako kanten letratako ikutu ironikoa mantentzen duzue.

Bai, hori da egiten dakiguna. Zapatuan Plateruenean eskainiko ditugun kanten letrak, neuk idatzitakoak dira batzuk, eta zapatuan geugaz arituko diren hiru bertsolariek idatzi eta geuk musikatu izan ditugunak beste zenbait.

"Asko antzematen da haize instrumentuen aportazioa disko berrian"

"Lan egiteko modua berria izan da azkeneko grabazio honetan"

Zapatuko kontzertua, gainera, taldekide baten despedida ere izango da...

Bai, taldean bateria jotzen duen eta Durangoko Rock Izar eskolan irakasle den David Gorospe Los Angelesera doa hiru hilabeterako, ikasketak burutzera. Durangokoa izango du bueltatu bitarteko azkeneko kontzertua.

Durangaldeko musika eszenagaz beste harremanen bat ere badauka Gozategi.

Bai. Durangoko eta Zornotzako bandetan jotzen dute Iñigo eta Joseba gure taldekideek.

Hamabost urteotan igarri duzue plazako giroa hoztu denik?

Egia esanda, gu harro egon gaitzke saio oso politak atera izan zaizkigulako, eta, gehiago edo gutxiago, jendea beti etorri izan zaigulako kontzertuetara. Orokorrean, oraingoak baino sasoi eskasagoak igaro ditugula esango nuke. Jende gutxiarekin ere kontzertu politak egin izan dira. Talde batzuk desagertu ere egin diren arren, urteotan trikitiak nortasuna irabazi duela esango nuke. ■ I.E.

Tartean, 90eko hamarkadako hasierako taldearen oinarrietako bat zen Ainhoa arrebak ama izatean taldea uzteko erabakia hartu zuela kontatu digu Asierrek, eta nabari dutela taldean Ainhoaren falta.



BERTSOLARITZA > ZIKLOA

'Bertsolamintza' jardunaldien laugarren hitzordua hartuko du eguenean Plateruenak

Martxoaren 10ean, 18:00etan hasita, Bertsozale elkarteak antolatutako duen saioa egingo dute kafe antzokian

S arako Lur Berri aretoan, Gasteizen eta Iruñean burutu dituzte azken asteetan Bertsozale elkarteak antolatzen duen *Bertsolamintza* gogoeta, ikerketa, berbaldi eta eztabaida zikloaren lehenengo hiru saioak. Martxoaren 10ean, eguenean, 18:00etan hasita, Durangoko Plateruenean izango da hurrengo hitzordua.

Berbaldia, eztabaida eta bertso-saio esperimentalak burutuko dituzte Plateruenean, eta Onintza Enbeita bertsolariak egingo ditu aurkezle eta moderatzaile lanak.

Bertsolaritzagaz loturiko gaien inguruko gogoeta eta ikerketa sustatzea helburu duten jardunaldietan, *Inertziak erantzi, garena jantzi* lemagaz jardungo dute aurretan, laugarren edizioan.

Azken hilabeteetan gaiok mintegietan landu eta eztabaidatu ondoren, "hausnarketa borobildu ondok gizarteratzeko", Bertsozale elkarteak azaldu duenez, "bertsoza-

le, kulturgile eta oro har euskaltzaleekin" gogoeton emaitzak konpartitzea da *Bertsolamintza* ren jomuga. Durangoko kasuan, generoari buruzko eztabaida egingo dute.

Arratsaldeko seietan ekingo diote programari, berbaldiekin: *Gai-jartzailea emagin? Zenbateraino markatzen du gaiaren ikuspegiak eta tonuak ondorengo bertsoaldia* izenburuko berbaldia eskainiko du Egoitz Aizpuru gai-jartzaileak, eta ondoren *Gorba-ta ala amantala erantzita... andre-gizonak bertsortan biluzik?* gaiaz jardungo du Ibon Arrizabalagak.

'Inertziak erantzi, garena jantzi' lemagaz jardungo dute laugarren edizio honetan

Generoari buruzko gogoetak eta bertso-saio esperimentalak burutuko dituzte Plateruenean

Aizpuruaren eta Arrizabalagaren hitzaldiak eta gero, hitzaldi horietan mahaigaineratutakoak ahotan hartuta, 19:30ean zabalduko dute eztabaida Plateruenean bildutako publikoagaz. Ondoren, 20:30ean hasita, bertso saio esperimentalak burutuko dute Plateruenean: Egoitz Aizpuru gaiak emanda, Jon Maia, Iker Zubeldia, Onintza Enbeita eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak jardungo dute bertsoan.

Martxoaren 12an, zapatuan, Villabonan izango da *Bertsolamintza* zikloaren azkeneko saioa, eta goizean goizetik hasita jardungo dute hausnarketa eta eztabaidan. ■ I.E.

musika zuzenekoetan defendatzeko. Hurrengo helburua, uda partean bira amaitutzat eman eta bitartean sortu dituzten kantekin diskoa kaleratzea du Dinerok: kontzertuetan zuzenean eskaini ahal izateko kanta gehiagoko errepertorioa izateko.

Barikuan, Plateruenean, 2009an grabatutako hamaika kanta eta hura kaleratu zutenetik sortu dituzten beste zenbait eskainiko dituzte. Duela urtebete Berrizko Gaztetxean eskaini zuten kontzertuaren harira beragaz izan genuen elkarrizketan Elortza bateria-jotzaile berriztarrak zioenez, "hiru musikari oso energikoren baturaren" indarra entzungai izango da Plateruenean. Kontzerturako hiru sarrera bikoitz zotz egingo ditugu www.anboto.org webgunean. ■ I.E.

MUSIKA > KONTZERTUA

Dinero hirukoteagaz dator martxoaren 11n Ekain Elortza bateria-jotzailea Durangora

Madril eta Bartzelonan eskainiko dituzten kontzertuen tartean, martxoaren 11n da Ekain Elortzak jotzen duen Dinero taldearen Platerueneko zita

Otsailean, besteak beste, Birmingham eta Londresen zuzenekoak eskainita, martxoaren 10ean, 11n eta 12an Madril, Durango eta Bartzelonan joko du, hurrenez hurren, Dinero hirukoteak. Ondoren, gutxienez apirila arteko eguen, barikua eta zapatu gehienak dituzte lotuta Ekain Elortza berriztarrak eta bere taldekideek; kontzertuetarako hitzorduekin beteta. Estatuko hainbat hiriburuko aretoetan jo dute dagoeneko azken hilabeteetan, eta zerrenda hori zabaltzen darraite Madrilan elkartutako musikariek. Tartean, *Mentiras* izeneko bideoklipagaz hainbat sari eta aipamen ere jaso dituzte.

Taldearen izen beragaz kaleratu zuten diskoaren aurkezpen biraren amaiera da udara arte luzatuko dutena, eta dagoeneko 60tik gora kontzertu eskaini dituzte bira horretan: eskaintza asko izan dituzte euren



Duela urte bi grabatu zuten izen bereko diskoko hamaika kanta eskainiko dituzte

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz Berbaroko kidea

Baztertuen hotela

Antzinako uriaren ateetako baten alboan dago. Mañaria errekarren ur garbiak lantzantzen ditu hormatzarrak, hiribildutik bestaldean. Hor bizi ziren Erdi Aroan herritar arruntak, baserritarrak, nekazariak...; hiribildutik bestaldean.

Geure Durangaldea n idazteko behin baino gehiagotan izan dut adiskide italiarraren laguntza estimagarria. Bere talaiatik beste modu batez ikusten du gure ingurua.

Oraingoan harresiak eta baztertuak aipatu dizkit; kontu horietan, Erdi Arotik hona, gauzak ez direla horrenbeste aldatu. Pinondora hurreratu zen lehenengo egunean, ikaragarri gustatzen zaio eta bazter hori; lasaitasuna transmititzeaz gain, denboran atzera egiteko ere aparta da errekonodoa.

Kanpotik ikusita, ostatu baten antza hartu omen zion eraikin zaharrari. Sar-tu eta harreragileari zuzendu zitzaion jakin-minez. Andreen gunea, euskaren lantegia, behartsuei laguntzeko elkar-tea, gobernuz kanpoko erakundeak, gai-xoak... Marjinatuen aterpea otu zitzaion, baztertuentzat eraikitako hotela, hiribildutik bestaldean.

Gero, harreragileak hoteleko gela xumeak erakutsi zizkion Feliceri, atseginez. Luxu bakoa, bizipenez bete, iru-ditu zitzaion lehena ikusitakoan. *Do not disturb* zintzilikaririk agerian ez. Atea jo eta, zabaltzean, maizterrak, altzariak eta trasteak motroiloan, euskararen lantegia zela esan zioten; euskaraz (nahaspilatuta?) bizitzeko uneak eta guneak sortzea zela euren egitekoa; handik, hiribilduaren bestaldetik.

Harresi barrukoengana hurreratu ezinean zebiltzala esplikatu zioten lagun italiarrari, gotorlekuan sartzeko azaroak zituztela. Armadurak, ezpatak, zaldiak eta parafernalia guztia hartzeko eta eraso egiteko aholku eman dit lagunak, garai ezin hobea dela harresi ikusgaitzak suntsitzeko. Eta horrela esplikatzeko euskara lantegikoei.

Arrangurak bazterrean utzi eta moz(k)or(ro)tu gaitezten, eta gehiegikerietan nahaspilatu, aratusteak dira-eta. Badator begien distira areagotuko digun garizumako haizea.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 4 21:30ean JAM SESSION. Doan. VII. DURANG[H]OTS

MARTXOAK 5 22:00etan KONTZERTUA. 8-10 euro. GOZATEGI. INAUTERI GAUEKO JAIA.

MARTXOAK 8 20:00etan KONTZERTUA. 12-15 euro. D.R.I. + HUMILIATE + GUEST BAND.

MARTXOAK 10 18:00etan BERTSOLAMINTZA. Doan. HITZALDIK & BERTSO SAIO ESPERIMENTALA.

MARTXOAK 11 22:00etan KONTZERTUA. 12-15 euro. DINERO + OVNI + GRISES.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

MANIATIC@S Organik Dantza Taldea (Bilbao)

Martxoak 5 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11-94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

MARTXOAK 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO
ZERBITZUA**



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

Tel.: 94 620 04 92



Andragunea: emakumeei eta emakumeen elkarteei babesa eskainiz urte bian

Durangoko Andragunearen bigarren urteurrena Emakumearen Nazioarteko Egunaren mendeurrenagaz batera ospatuko dute. Tokiak erreferentzialtasuna irabazi dezan egin dute lan; balorazio positiboa egiten du Nagore Uribe-Etxeberria dinamizatzaileak.



Andraguneak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar, tartean erakusketak.

Zientziak emakumeari zenbat zor dion gazteei jakinarazten

Aurten Zientziaren Nazioarteko Urtea dela aprobetxatuta, martxoaren 14tik 18ra 'Emakumeak zientzian' izeneko erakusketa irekiko dute San Agustinen, eta bisita gidatuak antolatu dituzte 8 urtetik 10 arteko Durangoko ikastetxeetako gaztetxoei zuzenduta

Emakumeek ekarpen garrantzitsuak egin izan dituzte zientziaren arlorik gehienetan, baina askotan ez dute merezitako oihartzunik eta aintzatespenik jaso gizartean. Hutsune hori eta Zientziaren Nazioarteko Urtea aitazkia moduan hartuta, *Emakumeak zientzian* izeneko erakusketa antolatu dute San Agustin kulturgunean, eta Durangoko ikastetxeetako 8tik 10 urtera bitateko gazteekin bisita gidatuak antolatu dituzte bertara.

Gaian trebatutako ipuin-kontalari batek modu ulerterraz eta dinamikoan azalduko die gaztetxoei hainbat emakumek zientziaren arloan izandako garrantzia, eta egindako ekarpenen berri.

Erakusketa kulturguneko hallean antolatuko dute, martxoaren 14tik 18ra, eta Teresa Nuñoren (Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Esperimentalen Didaktikako katedraduna) txos-

ten batean oinarrituta dago. Horren arabera, sei taldetan banatu dute erakusketa, eta honako emakumeen gaineko infomazioa jaso ahal izango dute: Mary Engle Pennington, Marion Donovan, Emili de Breteuil, Sophie Germain, Catherine Littlefield, Caroline Htschel, Ada Augusta Byron, Mileva Maric, Alejandriako Hypatia eta Marie Curie.

Durangoko Udaleko Berdintasun Saila urtero ahalegintzen da gazteei zuzendutako ekintzak antolatzen Martxoaren 8ari begira. Iaz ere egitura bereko ekimena antolatu zuten, eta "oso pozik" geratu ei ziren jasotako erantzunagaz; "gaztetxoei asko gozatu zuten ekimenean", Kety Arrabal berdintasun teknikariak azaldu duenez.

Hauek dira ekimenean parte hartuko duten ikastetxeak: Landako, Nevers, San Antonio-Santa Rita eta Zabalarra.

Ipuin kontalariak erraz ulertzeko eran bideratuko du gaia gaztetxoei begira

lazko arrakasta ikusita erabaki dute aurten ere ekimen hau antolatzea

Emakumeen Nazioarteko Eguna 1911an ospatu zen lehenengoz; 100 urte bete ditu berdintasunaren aldeko borroka gogoratzen duen egun honek, beraz. Ez da aurten ospatuko den urteurren bakarra, hala ere. Durangoko Andragunea zabaldu zutenetik bi urte beteko dira martxoaren 7an, aurreko egunean. Bertako dinamizatzaile den Nagore Uribe-Etxeberriaren berbetan, bi urteotako balorazioa positiboa da. "Parte-hartzaileen kopurua handiagoa da; 250 emakumek aurretik eman dute izena jada". Parte-hartzaileen kopuruak gora egiteaz gainera, "heterogeneoagoa" ere bilakatu dela adierazi du Uribe-Etxeberriak; adin tarte zabaldu egin da, eta hainbat bizimailako jendea hurbiltzen da; "gehienbat 25-40 urte bitarteko emakumeak datoz". Andraguneko dinamizatzailearen berbetan, hainbat arrazoi daude emakume horiek bertara hurbiltzeko; "ezagupen maila handitzeko" hurbiltzen ei dira gehienak, Uribe-Etxeberriaren ustez.

Martxoaren 8an
19:00etan kalejira
abiaturiko dute
Andra Maritik

Urteurren horiek gogoratze-ko, egitarau oparoa antolatu dute Plataforma Feministak eta Berdintasun Udal Kontseiluak; aurtengo martxoaren 8a inauterietako astearteagaz batera dator, eta aldarrikapena eta festa uztartzea erabaki dute. Horretarako, mozerro jaia antolatu dute: 19:00etan, Andra Maritik abia-

tuta, kalejira egingo dute, eta ondoren mobilizazioa; 20:00etan hasita, manifestazio batek herriko kaleak zeharkatuko ditu. Hau amaitzean, Andragunearen urteurrena ospatzeko, jaialdia egingo dute Santa Anan. Egunean zehar egingo diren ekimeneetara mozerroturik hurbiltzeko deia egin dute antolatzaileek; mozerrotzeko aukeratu duten gaia, berriz, "feminismoaren historia" da. Deitzaileek historian zehar emakumeak "bazeratu" dituzten lanbideetako mozerroak janztera gonbidatzen dituzte herritarrek, hau da, suhiltzailez, medikuz, meatariz... mozerrotzeko. Deitzaileek berdintasunaren bidean oraindik ibiltzeko bide luzea geratzen dela ere gogoratzen dute.

Urteurren honetan jaia eta aldarrikapena uztartzea erabaki dute deitzaileek

Dokumentala ikusgai
Bestalde, Martxoaren 8ari begira antolatutako beste ekitaldi bi ere azpimarratu dituzte antolatzaileek. Hilaren 18an, 20:15ean, Helena Taberna zuzendariak Nagore Laffageren kasuan oinarrituta egindako dokumentala eskainiko dute San Agustin kulturgunean. Sarrera doakoa da. Gainera, emanaldia amaitzen denean mahai inguru bat egingo dute eta nahi duenak bere iritzia eman ahalko du.

Azkenik, martxoaren 13an *Tengamos el sexo en paz* antzez-lana eskainiko dute San Agustine kulturgunean.



Martxoak 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

Martxoak 8 "Emakumeen nazioarteko eguna"

ANDRAGUNEAREN 2. URTEURRENA
"Feminismoaren historia" gaiarekin mozerro zaitez!

19:00 Kalejira Andra Maritik.

Broken Brothers Brass Band

20:00 Manifestazioa Andra Maritik

20:30 Andragunearen urteurrena

jaialdia, Santa Ana plazan

Antolatzailea: Plataforma feminista eta Berdintasun Udal kontseilua

Martxoak 8-18

ERAKUSKETA

"ESBN Emakume Saharaiuen Batasun Nazionala" Andragunean

Martxoak 13

LILAKROSA

12:30 Berdintasunaren aldeko

VI. Herri Lasterketa.

"Durangok Sahara gogoan",

Ezkurdi plazan.

Laguntzailea: Durangoko

Udalaren Gizarte Ekintza Saila.

Erosi Lilakrosaren kamiseta

Sahararen alde.

ANTZERKIA

19:00 "Tengamos el sexo en paz"

eme2 (Galizia),

San Agustin kultur gunean

Martxoak 14-18

ERAKUSKETA GIDATUA

IKASTETXEETAN

"Emakumeak zientzian",

San Agustin kultur gunean.

Martxoak 18

DOKUMENTALA


20:15 "NAGORE": Nagore Laffageren kasuan oinarrituta.

Helena Taberna.

www.nagorepelicula.com

Sarrera doan,

San Agustin kultur gunean



VOTES

Sahararen alde batuko dute dirua aurtengo Lilakrosean

Iaz Lilakroseko kamisetak saltzen hasi ziren Haitiko lurrikaran kaltetutakoei laguntzeko. Aurtun, berriz, aldarriak elkartasunagaz uztartuko dituzte, eta Saharako kanpamenduetan bizi direnei bideratuko diete dirua

Lilakrosak beste behin lila kolorez jantziko ditu Durangoko kaleak. Aurtun seigarren biderra egingo du berdintasuna aldarri dute-la osatzen duten lasterketak. Baina Durangoko kaleetan zeharrekoa ez da aurtun osatuko

duten bide bakarra; beste bide batean ere aurrera jarraituko dute; elkartasunaren bidean, hain zuzen ere. Iaz kamisetak Haitiko lurrikaran kaltetutakoen alde saldu bazituzten, aurtun Saharako kanpamenduetan

Aurtun ez dute kamisetarik salduko; dohaintzan emango du dirua gura duenak

daudenei laguntzeko erabiliko dute dirua. Baina ez dituzte kamisetak salduko. Banatu egingo dituzte iaz arte egiten zuten moduan, eta gura duenak dohaintzan emandako dirua jasoko dute. Bertan egongo dira hainbat fami-

lia saharai ere, ekimenari bul-tzada ematen.

Martxoaren 13an, 12:30ean, Ezkurdi Plazan hasi eta Santa Anan amaituko da lasterketa. 17 tramutan zehar hainbat elkar-teren artean erreleboka eroan-go dute testigua, eta aurtun, nobedade moduan, Berdintasun Kontseiluak lehenengo eraman-go du; eurek hasiko dute laster-keta Ezkurdin. Murueta-Torreko auzo elkar-teak ere estrainekoz jasoko du testigua: gainerako tramuetan honako elkarte edo tal-deak izango dira protagonista: Izar Gaztea, Uztai Taldea, Landako, Nevers eta San Antonio-Santa Rita ikastetxeetako gurasoen

Lasterketaren lehen tramuan Berdintasun Kontseiluak eramango du testigua

elkar-teak, DRTko emakumeen tal-dea, Errotari, Tabirako, Txoritxo Alai, Jappoo, Bat Eginez, Durangaldeko Ahotsak, Plataforma Feminista, Durangaldeko Ahotsak eta emakume saharaiak.

Erakusketa Andragunean

Ekimen horiez gainera, martxo-ak 8-18 bitartean ESNri (Emakume Saharaiuen Batasun Nazionala) buruzko erakusketa egongo da Andragunean. Bertako emakumeek bizi duten egoera islatu gura dute erakusketan. Erakundea 1974an sortu zen, Saharako emakumeen eskubide-ak defendatu guran.

Gainera, 2011ko apirilean zehar ESN-ak bost urterik behingo batzara burutuko du kanpamenduetan.



K. Aginako

Egitarau oparoa osatu dute Abadiñon

Martxoaren 8rako, 17:30etik aurrera, antolatu duten egitarauak jasotzen dituen ekimenetan parte hartzen duten emakumeak mozorrotuta joan daitezzen deia egin dute

Martxoaren 8ko arratsalde eta iluntzerako, herrian aldarrikape-na eta jai-giroa zabaltzeko asmoz, hainbat ekimen antolatu ditu Abadiñoko Udaleko Berdintasun Sailak. Martitzenean, 17:30ean Pino plazan hasita, kalejirak girotuko du eguna, batukadagaz.

Mozorrotuta

Egun horretako ekimenetan parte hartzen duten emakumeak mozorrotzera animatu dituzte egitarauaren antolatzaileek: "Andre langilea, mozorrotu zaitetz beti izan nahi eta sekula izan ezin izan

duzunaz" da emakume abadiña-rreri udalak zabaldu dien deia. Eki-taldietan mozorrotuta parte har-tzen dutenen artean, hiru Trivial Feminista zotz egingo dituztela ere aurreratu dute.

Herria kalejiran eta batuka-da hotsez lagunduta zeharkatu ondoren txokolatada eta dantzal-dia antolatu dituzte frontoian, eguna amaitzeko. Martitzena orduko, baina, emakumeen egu-nerako antolatu dituzten ekime-nak iragartzen dituen kartela hau-tatzeko burututako lehiaketaren saria banatu dute gaur.

Dagozkien sariak eman diz-kiete gaurko ekitaldian, kartel lehiaketako 600 euroko lehenen-go saria jaso duen 21 urteko Miriam Perez abadiñarrari, herri-ko saria jaso duen Vega Asen-siori, eta sari bereziak jaso dituz-ten Ainara Barrainkua atxondar-rari eta Mónica Arana bilbotarrari.

Batukada doinu-z lagunduta, kalejira burutuko dute martxoaren 8an

Sexuari buruzko aurreiritzi eta beldurrez, Errotako oholtzatik

Martxoaren 5ean, 20:00etatik aurrera, Traña-Matienako Errota kultur etxean eskainiko du Eme2 antzerki talde galziarrak *Tengamos el sexo en paz* antzezlan

Bihar, 20:00etan, Traña-Matie-nako Errota kultur etxean izan-go da martxoaren 8ko emaku-me langilearen nazioarteko egu-naren harira Abadiñon antolatu duten programaren barruan jaso-tako antzerki emanaldia. Galizia-ko Eme2 taldearen *Tengamos el sexo en paz* obra izango da martxoaren 5ean ikusgai.

Hainbat pertsonaiaren aza-letik jarduten duen Mercedes Castro da laneko antzezle baka-rra, eta 17 pertsonaia horien aza-letik jarduten du sexuari berari zein sexuari buruz hedatuta dau-den aurreiritziei buruz.

Ikuskizuna, baina, ez da baka-rrizketa bat, sortzaileek azpima-rratzen dutenez. "Hainbat akto-rek parte hartzen duten zenbait obratan baino ekintza gehiago dago antzezlan honetan", dio Álvaro Lavín zuzendariak. Dario eta Jacopo Fo eta Franca Rame-ren testuetan dago oinarrituta.





ESKARNE LARRINAGA: "Garapen pertsonalerako gaiak dira tailerretan lantzen ditugunak"

Hogei urte baino gehiago daramatza pedagogia eta sexologia ikasitako Eskarne Larrinagak jabeakuntza ikastaroak ematen. Emozioen kudeaketa, biodantza eta yoga jorratzen ditu, besteak beste. Abadiñon eta Elorrion gidatzen ditu taldeak, eta interesa duten emakume guztiei luzatu die gonbita. 'Cándida' filmaren zineforuma gidatuko du martxoaren 7an, 17:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean

Zer da jabeakuntza ikastaro batean lantzen dena?

Gauza asko lantzen ditugu. Udari aurkezten diodan programan, esaterako, autoestimugaz edo jabeakuntzagaz loturiko gaiak aurkezten ditut, baina gero taldearen beharretara egokitzen dugu.

Zeren arabera egiten duzue jorratuko dituzuen gaien moldaketa?

Taldeko emakumeek dakartzaten beharren arabera moldatzen ditugu gaiak, eta indibidualizatzen joaten gara apurka-apurka. Batentzat onuragarriak diren gaiak taldeki-deentzat ere aberasgarriak izaten dira beti. Elkari asko laguntzen diote taldeko emakumeek.

Esate baterako, zer gai diharduzue saioetan lantzen?

Abadiñon, esaterako, "erresilientzia" ari gara jorratzen: arazo handi baten aurrean erantzuten jakiteko erresistentzia psikologikoa lantzea da ideia. Erresistentzia hori

landuta badaukazu, ez duzu desoreka emozionalik edo psikologikorik garatuko. Emozioak kudeatzeko ahalmena lantzea da.

Nortzuei zuzendurikoak dira jabeakuntza ikastaro horiek?

Jendeak pentsatzen du ikastaro hauek txarto dagoen jendearentzat direla, baina kontrakoa da. Garapen pertsonalerako gaiak jorratzen ditugu, eta edozein pertsonarentzat oso aberasgarriak izan daitezkeen teoriak eta praktikak jorratzen ditugu.

Gizonezkoentzat ere oso aberasgarriak izan daitezkeen gaiak jorratzen dituzue, beraz.

Horrela da, bai, eta aukera paregabea dabilta gaitzen gizonezkoak. Oraingo emakumeei zuzendurik daude tailerrok. Hasiera batean, orain hamarkada bi behar handia zegoen emakumeen autoestimua lantzeko, eta orain, beste erreferentziabatzuk ere badauz-

kagun arren, arazo oso antzekoak aurkitzen ditugu.

“ Bizitza poztasunean fokatzeko ikastea da helburuetako bat ”

Zineforumean, 'Cándida' filmagaz, zer landu gura duzue?

Urte asko daramat Euskal Herrian zehar zineforumak antolatzen, nire beste zaletasun bat baita zinema. Film hau oso aproposa da gai hauek lantzeko: protagonista emakume bat da, adin eta arazo pertsonal jakinak dauzkana. Drama pertsonal oso serioak —tratu txarrak eta indarkeria— era berezian jorratzen ditut pelikulak. Oso interesgarria da ikuskera hori, nire tailer guztietan, bizitza poztasunean fokatzeko ikastea baita helburuetako bat: egoera zailetatik "zer ikasi dut, positiborik zer ater dezaket" bilatzea.



martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Andre langilea, mozorrotu zaitez beti izan nahi eta sekula izan ezin izan duzunaz

egitaraua

MARTXOAK 4, BARIKUA
17:30ean Kartel lehiaketaren sari banaketa, Errota kultur etxean

MARTXOAK 5, ZAPATUA
20:00etan ANTZERKIA "Tengamos el sexo en paz"
Sarrera: 1 euro, Errota kultur etxean

MARTXOAK 7, ASTELEHENA
17:00etan ZINE-FORUMA "Candida" pelikularekin.
Zuzendaria: Guillermo Fesses. Hizlaria: Eskarne Larrinaga, Errota kultur etxean

MARTXOAK 8, MARTITZENA
17:30ean KALEJIRA batukadarekin, TXOKOLATADA, DANTZALDIA, Pinoko plazan hasi eta frontoian bukatu.
*Mozorrotuta datozen emakumeen artean 3 tribial feminista zozketatuko dira. MOZORROTU ZAITEZ!

MARTXOAREN 4tik 18ra
Kartel lehiaketara aurkeztutako lanen ERAKUSKETA, Errota kultur etxean

Antolatzaileak: **De Norte a Sur**

Abadiño
Elizateko Udaltza
Emakumeen eta Bardintasuna
Mujer e Igualdad

Sorginei omenaldia eta kalejira hilaren 8an

Martxoaren 8a karnabalekin batera dator aurten, eta Berrizko Udalak bi gertakizunak lotzen saiatu da. Martxoaren 8ko ekitaldiak iragartzeko kartelaren lehiaketan ere karnabalak izan dira sormena sustatzeko ipinitako gaia.

Hilaren 8an, 15:30etik aurrera, makillaje, perkusio eta jantzi tailerrak izango dira eskolako patioan. Arratsaldean kalejira eta

Miren Amurizak mahai-ingurua emango du, hilaren 11n, ikasleentzat

kontzentrazioa egingo dituzte, eta iluntzean Zugarramurdiko sorginei omenaldia eta trikipoteoa antolatuko dituzte. Jaia eta aldarrikapena batuko dituzte, beraz. Bestalde, hilaren 11n ikasleentzako mahai-ingurua egingo dute, Miren Amurizaren eskutik.

'Espazio hutsak' eta 'Hau ez da Kalkuta' taulara Berrizen

Martxoaren 8aren bueltan Berrizen antolatutako egitarauan antzezlan bi txertatu dituzte; Karrika eta Higa-antzerkia taldeek taularatuko dituzte, hilaren 12an eta 19an.



Taldearen hasierako urteetan Durangoko Institutuan aurkeztu zuten *Prostibuloa* antzezlanaren berrinterpretazioa osatu du Karrika antzerki taldeko "nagusien taldeak". Urtarrilaren 15ean estreinatu zuten *Hau ez da Kalkuta* obra Durangoko San Agustinen, eta orain Berrizera dakarte. Martxoaren 12an izango da saioa, iluntzeko 20:00etan; bost eurotan daude sarrerak salgai.

Antzezlanetarako sarrerak bost euroan daude salgai; biak dira 20:00etan

Bestetik, martxoaren 19an, *Espazio hutsak* antzezlan plaza-antzerki taldeak. Antzerki partitura sail baten taularatzean oinarritzen da, hiru aktore, olerkiak, mugimendua eta hotsak nahastuz. Horrela, egileen helburua ikuslea sentsazioz betetako unibertsoan biltzea izango da. Emakumearen ikuspuntutik, barne hausnarketak, gizartea, giza hartu-emanak, emetasuna, maitasuna eta ametsak jorratuko dituzte.

Lan hau ere iluntzeko 20:00etan hasiko da, kultur etxean, eta bertarako sarrera ere bost eurotan ipini dute.

MARTXOAK 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA ETA IHAUTERIAK

MARTXOAK 8 martitzena

15:30ean, makillaje, jantzi eta perkusio tailerrak neska-mutilentzako, eskolako patioan (eguraldi txarrarekin soinketa gelan)

18:30ean, KALEJIRA, eskolatik Urtiaga plazara

19:00etan, KONTZENTRAZIOA "Emakumeen nazioarteko eguna", Urtiaga plazan. Ondoren Zugarramurdiko sorginei omenaldia eta "triki poteoa": aldarrikapena eta jaia uztartuko ditugu.

MARTXOAK 11 barikua

14:30-16:00 "Emakumeak plazetan" mahai-ingurua. 5-6 LH, eskolako liburutegian. Miren Amuriza bertsolariarekin.

MARTXOAK 12 zapatua

20:00etan ANTZERKIA "Hau ez da kalkuta", Karrika Antzerki taldea. Euskeraz. Sarrera: 5 euro.

MARTXOAK 13 domeka

12:00etan, "II Añeketan", futbol zelaitik txapliguekin hasita. Sariak: euskal txapel lila eta liburuak. Ondoren guztiontzako luntxa izango da, musikarekin, Olakueta plazan.

Izena emateko erregistroan edo mailez. Iazko petoak ekarri. Frontoiko dutxak erabili nahi izanez gero, abisatu.

MARTXOAK 19 zapatua

20:00etan ANTZERKIA "Espazio hutsak", Higa Antzerki taldea. Euskeraz. Sarrera: 5 euro.



II. Añeketan lasterketan parte hartzeko deia egin dute martxoaren 13rako

Iazko arrakasta ikusita, emakumeen lasterketaren bigarren edizioa prestatzea erabaki du Berrizko Udalak; sariak, musika eta luntxa ere izango dira bertan.

Lehiaketa berezia egiteko ohitura hartu dute Berrizen martxoaren 8aren bueltan: emakumeen lasterketa. *Añeketan* deitzen da ekimen hori, eta aurten martxoaren 13an egingo dute herriko kaleetan zehar.

Eguerdiko 12:00etarako ipini dute hitzordua futbol zelaian; txapligua jaurtita hasiko dute korrikaldia. Handik Iturritza kalea joango dira korrikalariak, eta gero, kultur etxe ostetik buelta emanez, trenbidera hurreratuko dira. Hortik, Olakueta plazara joan eta helmuga zapalduko dute. Lehenengo heltzen denak txapel lila irabaziko du, eta gazteenarentzako zein helduenaren-

tzako liburuak banatuko dituztela azaldu dute.

Izen-ematea udaleko erregistroan egin daiteke, baita telefonoz zein posta elektronikoz. Iaz 40 lagun inguruk hartu zuten parte, eta antolatzaileek deia egin diete emakume guztiei, ahal dela kopuru hori handiagotzeko asmoz. Emakume guztien jaia izan behar dela nabarmendu dute.

Eguerdiko 12:00etarako ipini dute hitzordua futbol zelaian



Emakumeen begirada, eurek sortutako kulturaren bidez

lurretan egunotan emakumeek sortutako literaturaz, zineaz eta antzerkiaz gozatu ahalko da. Literatura tailerretan, esaterako, Birmaniako idazleen lanak ezagutuko dituzte saio irekian

Idatziz, antzetzuz edo istorio bat kameraren bidez kontatuz, kultura sorkuntzaren bitartez munduko emakumeak eta euren kulturak ezagutzeko aukera eskainiko dute egunotan lurretan.

Matxoaren 7an Munduko Emakumeen Literatur Tailerreko saio irekia egingo dute Ibarretxe

kulturetxean, 18:15ean. Txina eta Afrikako emakumeen literaturatik abiatuta, herrialde horietako errealitatea eta euren kultura ezagutu dituzte orain arte. Hego Asiako kultura lantzen dabilta orain, eta Birmaniako idazleen lanak ezagutuko dituzte astelehenero saioan.

Zinema eta antzerkia

Martxoaren 8an, Iciar Bollain zinemagilearen *Mataharis* pelikula-gaz bideo-foruma antolatu dute 19:00etarako. Hiru detektiberen gaineko pelikula da *Mataharis*.

Ermuko Izarraitz antzerki taldearen bisita ere edukiko dute



Hilaren 8an 'Mataharis' pelikularen zineforuma egingo dute; irudietan filmeko protagonistak.

Hego Asiako kultura lantzen dabilta Emakumeen Literatura Tailerrean

Izarraitz antzerki taldeak umorez lantzen du andreen egunerokotasuna

Ermuko antzerki taldeak; hainbatetan ekarri dituzte euren emandakiak lurretara.

Apirilaren 2an, berriz, auto-defentsa tailerra emango du Maiteena Monroeek. Hilaren 25a da ize-na emateko azkeneko eguna.

Afaritara mozorroa jantzita joateko eta ekitaldi ugarirako deia egin du Anderebidek

Goiurin emakumeen afaria antolatu du Anderebide emakume elkarteak biharko. Martxorako ikastaro bat antolatu dute, eta udaberriko plangintza prestatzen dabilta orain

Bihar, zapatu karnabalez, berrogeita hamar emakume baino gehiago batuko dira Goiurin, Ikuspegi jatetxean. Euretako asko, gainera, mozorroa soinean daukala ibiliko da, mozorrotuta joateko deia egin du-eta Anderebide emakume elkarteak.

Duela urte eta erdi sortutako elkarteak iaz antolatu zuen lehenengoz mota honetako afaria, eta 83 emakume elkartu ziren orduan. Maria Jose Gonzalez Anderebideko kideak azaldu du pozik daudela elkartearen ekin-tzek izaten duten erantzunagaz:

Emakumeen Nazioarteko Egunagaz, baina testamentuen gaineko hitzaldi batean galdera asko geratu ziren erantzun barik. lurreta elizatea izanik, arau foral-lak aplikatzen dira berton, eta hitzaldi hartan informazioa falta izan zitzaigun". Abella Legal ekimeneko kideek emango dute berbaldia martxoaren 16an, 18:00etatik aurrera, Ibarretxe kultur etxean.

Martxorako ekitaldiez gainera, udaberriko ere hainbat egitasmo ditu Anderebidek. Horien artean, biodantza ikastaroa eta nutrizioari buruzko hitzaldia antolatzen ere badabilta aurreratu du Gonzalezek.

Euren ekintzekin eta Martxoaren 8agaz zer aldarrikatu gura duten galdetuta, hau da Gonzalezen erantzuna: "Emakumeak ikusezin ez izatea gura dugu".

Biodantza ikastaroa eta nutrizioari buruzko hitzaldia antolatuko dituzte udaberriko

"Duela gutxi egin dugun sagardotegiko irteeran ia beste autobus bati deitu behar izan genion, eta ikastaroetan ere jende askok parte hartu du; batzuk errepikatu egin behar izan ditugu".

Afariagaz gainera, hilaren 16rako testamentu foralaren gaineko berbaldia antolatu du Anderebidek. "Ez dauka zerikusizuzer-



Aurten sagardotegirako irteera antolatu du Anderebidek.

MARTXOAK 8

IURRETA - 2011

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 5 (Zapatua) 21:30 Ikuspegi jatetxean (Golarria)
EMAKUMEENTZAKO AFARIA.
 (Autobusa jarriko da 20:45ean "Correos"eko geltokian)
 Leku kopuru mugatua.
 Txartelak salgai: martxoak 3a arte, Ibarretxe kultur etxean edo 616 470 506 telefononon.
 Prezioa: Bazkideak (ANDEREBIDE): 20 euro
 Erroldatuak: 25 euro
 Besteak: 30 euro
 "INAUTERIAK DIRELA ETA, ANIMATU ETA MOZORROTU ZAITEZ"

MARTXOAK 7 (Astelehena) 18:15 Ibarretxe kultur etxean
MUNDUKO EMAKUMEEN LITERATURA TAILERRA.
 "BIRMANIAKO EMAKUMEA - AUNG SAN SUU KYI"
 Dinamizatzailea: Marina Santa Koloma
 Izen ematea: Martxoak 4a arte

MARTXOAK 8 (Martitzena) Ibarretxe kultur etxean
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA.
 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - BIDEO-FORUMA
 18:15 ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA
 18:15 BIDEO-FORUMA "MATAHARIS".
 Moderadora: Marina Santa Koloma

MARTXOAK 11 (Barikua) 20:00 Ibarretxe kultur etxean
ANTZERKIA.
 "TE, A LAS 4 DE LA TARDE" - (Izarraitz Antzerki Taldea)

MARTXOAK 16 (Eguazkena) 18:00 Ibarretxe kultur etxean
HITZALDIA.
 "TESTAMENTO FORAL" - (Abella Legal)

APIRILAK 2 (Zapatua) Golarria kultur gunean
EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA
 10:00-14:00 eta 15:30-19:30 Goltez eta arratsaldez
 Formaltzailea: Mai Monroe
 Izen ematea: Martxoak 25a arte, Ibarretxe kultur etxean

gizarteak behar dituelako **Emakumeak aurrera**

Udaletan, aldundietan, gobernuetan
unibertsitateetan, sindikatuetan,
enpreetan...

Euskadiko enpresa, instituzio eta
erakundeetako goi-kargudun gehienak
gizonezkoak dira.

**Arlo guztiak,
emakume guztiak**



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



PLATERUENA MARTXOA

2011 EGITARAUA

www.plateruena.net

03 OSTEQUENA

BERBERTAN
ELKARRIZKETA: BERTATIK BERTARA
MADDALEN IRIARTEK
EDURNE BROUARD
20:00etan, Sarrera: DOAN

04 OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
DURANG(H)OTS
JAM SESSION
21:00etan, Sarrera: DOAN

05 LARUNBATA

MUSIKAKONTZERTUAK
ARATJSTE GAJEKO JAIA
GOZATEGI
22:00etan, Sarrera: 9-10€

08 ASTEARTEA

MUSIKAKONTZERTUAK
DRI
+ HUMILITATE
+ TALDE GONBIDATUA
20:00etan, Sarrera: 12-10€

10 OSTEQUENA

BERTSOLARITZA
BERTSOLAMINTZA
FITZALDIK + BERTSO SAIO ESPERIMENTALA
IKER ZUBELDIA, ONINTZA ENBETA, JON MAIA, ANHIOA AGIRREAZALDECI
18:00etan, Sarrera: DOAN

11 OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
DINERO
OVNI + GRISES
22:00etan, Sarrera: 12-14€

12 LABURBATA

HERRIURRATSEN ALDEKO JAIA
12:30etan ARDO DASTAKETA
14:00etan BERTSO BAZKARIA
18:30etan PIRRI TX ETA PORROTX

13 USANDEA

UMEENTZAKO ANTZERKIA
TXOLO, HEGALARI
TONTOLO
17:00etan, Sarrera: X

17 OSTEGUNA

MUSIKAKONTZERTUAK
I. ROCK IZAR MAKETA LEHIAKETA
I. FINAL ERDIA
21:00etan, Sarrera: DOAN

18 OSTIRALA

BAKARRIZKETA LEHIAKETA
EUSKALAKETA
BIZKAIKO FINALA
20:30etan, Sarrera: DOAN

19 LABURBATA

DANTZALDIBILTARIA
AIKO ERROMERIA
www.aikotaldea.com
19:00etan, Sarrera: DOAN

22 ASTEARTEA

ZINE DOKUMENTALAK
KOLORETAN BIZI
ZINEMALDIA
19:30etan, Sarrera: DOAN

24 OSTEGUNA

KANTUZALEENTXOKOA
KANTULAGUN
GONBIDATUA: MIKEL MARKEZ
Parte hartzeko: kultura@plateruena.net
30:00etan

25 OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
BIZARDUNAK
KHAMUL
22:00etan, Sarrera: 9-10€

26 LABURBATA

MUSIKAKONTZERTUAK
KALAKAN
22:00etan, Sarrera: 5€

31 OSTEGUNA

MUSIKAKONTZERTUAK
I. ROCK IZAR
MAKETA LEHIAKETA
II. FINAL ERDIA
21:00etan, Sarrera: DOAN

01 ABRILA OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
I. ROCK IZAR
MAKETA LEHIAKETA
FINALA ETA SARI BANAKETA
21:00etan, Sarrera: DOAN

02 ABRILA LABURBATA

MUSIKAKONTZERTUAK
EL COLUMPIO ASESINO
22:00etan, Sarrera: 10-12€

OSTIRALETAN
MUSIKA
JARTZAILEAK
ZUZENEAN!!!



www.plateruenasarrerak.eu

APIRILEAN DATOZENAK: 07 LABURBIRA 2011 08 ENTOMBED (Wombat Fest) 09 AIKO ERROMERIA 10 OLGETAN
15 GAU ELEKTRONIKOA 28 KANTULAGUN 29 KMON SESSION 30 NAZIOARTEKO DANTZA EGUNA



ANTZERKIA > SARIA

Liburuak bueltatzeko makina ipini dute Durangoko Udal Liburutegian

Proba batzuk egiten dabilta orain, eta astelehenetik aurrera erabilgarri egongo da makina



Zirrikitutik liburuak, CDa edo DVDa sartu, apur bat itxaron eta makinatik sartu duguna ondo sartu dela dioen tiketa irtengo da. Astelehenetik aurrera maileguan hartutako materiala makina batek bueltatzeko aukera edukiko dute Durangoko liburutegiko erabiltzaileek.

Duela urte bi ipini zituzten liburuak hartzeko makinak liburutegian, eta gaur egun maileguen % 65 makina horien bitartez egiten dela nabarmendu du Xabier Aranguren liburutegiko arduradunak.

Makinaberriaren barruan 200 eta 250 liburu artean sartzen dira. Liburuak edo bestelako materiala bertara sartzean, liburutegikoa dela identifikatzen du makinak eta momentuan bertan erabiltzai-

Liburutegiko maileguen % 65 makinaren bitartez hartzen da gaur egun

leak beste mailegu bat egin dezake. Arangurenek azaldu duenez, "barruan sartuta zer daukan jakiteko aplikazioa dauka makinak".

Arangurenek adierazi duenez, datorren hilean Durangoko liburutegian 41.000 liburu edukitzera helduko dira. Hilean 5.000 mailegu inguru egiten direla azaldu du, eta makinak beharginen lana errazten dutela: "Katalogiorako eta bestelako beharretarako denbora gehiago daukagu makinak ipini genituenetik".

EAE n Durangokoa da liburuak bueltatzeko ipini duten lehenengo makina

Aitzindaria

Euskal Autonomia Erkidegoan ipintzen duten mota horretako lehenengo makina da Durangokoa. 24.000 euroko kostua du eta % 90 Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzagaz ordaindu dutela azaldu du Aitziber Irigoras alkateak.

Astelehenean liburuak bakkrik bueltatu ahalko dira, konfigurazioa amaitu arte. Maileguak bueltatzeko makinak hartzekoak daukan harrera izatea itxaroten du alkateak: "Liburutegien etorkizuna izango da hau". ■ A.U.

ANTZERKIA >

Teatre Nu talde katalanaren umeentzako 'Aitona Matias'

Umeei zuzenduriko ikuskizunak ekoizten 1999tik diharduen taldea da Bartzelonako Institut del Teatre-n antzerkigintza ikasketak burututako kideek osatzen duten Teatre Nu. Martxoaren 11n, 18:00etan, Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dute *Aitona Matias* ikuskizuna.

Duela urte bi estreinatu zuten *Avi Ramon* lanaren euskarazko bertsioa da azaroan aurkeztu zuten *Aitona Matias*, aitonamonen eta umeen arteko hartu-emanen diharduena: handitu ahala umeak hainbeste gauza berri ikasten dituen bitartean, aitonari oroimena zelan txarzen zaion erakusten du. ■ I.E.



ANTZERKIA > SARIA

Gorakada antzerki talde abadiñarrak 2010eko abenduan Durangoko San Agustin kulturgunean estreinatu zuen umeentzako *Ogro txikia* antzezlanak jaso du 2011ko umeentzako Europako FETEN antzerki lehiaketaren dramaturgia onenaren saria.

Europako zortzi herrialdeetako 65 antzerki konpainiak hartu dute parte aurtengo FETEN sariaketan, eta joan zen astean Xixongo Sur aretoan egin zuten sari banaketa ekitaldia.

Antzerki sariketa honetan Gorakadaren lana goraipatzen duten hirugarren aldia da hau: 2004an zuzendaritza eta eszenografia onenaren saria jaso zuten, *Jim altxorraren irlan* lanagatik; 2006an, berriz, ikuskizun onenaren saria *Robin eta Hood* obragaz.

Europako 8 herrialdeetako 65 antzerki konpainiak hartu dute parte sarietan

Umeentzako antzerkia sortzen 1987tik diharduen antzerki taldea da Gorakada, eta orduetik, urterik urte umeentzat pentsaturiko antzezlanak ekoizten dituzte. Hogeitik gora antzezlan aurkeztu ditu Gorakadak hamarkada biotan, eta azkeneko estreinatu duten lana da *Ogro txikia*.

Suzanne Lebeau-eko antzerkigileak 1997an argitaratu zuen lanaren moldaketa da Agurtzane Intxaurre eta Arantza Iturbek elkarlanean moldatu duten eta Gorakadak oholtzaratu duen *Ogro txikia*. Intxaurre eta Aritz Rodríguez

Dramaturgia onenaren saria jaso du Gorakadaren 'Ogro txikia' obrak

FETEN sarietan Gorakadaren antzezlan bat goraipatzen duten hirugarren aldia da

zaldibartarragaz batera, Javi Tirado eta Iñake Irastorza dira umeentzako lan berezi honetan aktore.

Besteak beste, askatasunari, arazoei aurre egiteari, desberdinen arteko berdintasunari eta beldurrari buruzko gogoetak dira antzezlanekoak; Fran Lasuen musikariak sortutako musikak osatzen du obra "testu filosofiko eta poetikoa".

Suzanne Lebeau-k 1997an argitaratu zuen lanaren moldaketa

Testua moldatzeko lana, interpretazioa, eszenografia, iluminazioa zein jantziak eta zuzendaritza lana dira *Ogro txikia* emaitza "ausarta" eman dutenak. Estreinatuta eta bi hilabetera saritu dute nazioarteko sarietan. Umeak eta euren imajinarioa gutxietsi beharrean, "arrikuak hartuz sortzeak", hainbat sari dakartza. ■ I.E.



ERAKUSKETA >

Alonsoren abstrakzioak Durangoko Museoan ikusgai

Gaur, ohi denez, bariku iluntzean, burutu dute Durangoko Arte eta Historia Museoan Susana Alonso artista donostiarraren lanen bildumak osatzen duen erakusketaren inaugurazioa. 1985ean EHUko Arte Ederren fakultatean lizentziatu zen Alonso, eta, besteak beste, Donostia, Bilbo, Gasteiz, Irun eta Segoviko aretoetan burutu izan ditu bakarkako erakusketak.

Martxoak 27a arte egongo dira koadroak Durangoko Museoan

Durangoko Arte eta Historia Museoan dakartzanak urteetako lan ildoak jarraitzen duten koadroak dira, baina erakusketaren eskuorrian aipatzen denez, "bere lanean eta egindako lanaren zergatian segurtasun handiagaz" egindakoak.

Hain eguneroko baina abstraktuak diren emozioak, ametsak eta grinak, koadroetan ere abstrakzioen bitartez adieraztea da Susana Alonsoren lanaren muina. Berehalakotasuna eta inpaktua adierazten duten irudiak dira erakusketakoak.

Margolanez gainera, margolariaren sorkuntza prozesua erakusten duten bideo eta argazkiak ere bildu dituzte. ■ I.E.

KIROLAK >

“Inglaterran zaletasun handiagoa dago pistako txirrindularitzarako”



23 urteko txirrindulari gaztea izan arren, palmares dotorea dauka Elorriagak.

Munduko Kopan lehiatu ondoren, Espainiako Koparako prestatzen harrapatu dugu Martzel Elorriaga. Lesioak albo batera utzita, fin dabil aurten; Espainiako Txapelketan zilarrezko domina lortu zuen zaldibartarrak.

Munduko Kopan lehiatu zaren lehenengo aldia izan da?

Ez. laz lehiatu nintzen lehenengo maila horretan; bi probatan aritu nintzen. Aurten, ostera, hiru probatan ibili naiz: Melbournen, Pekinen eta Manchesterren. Lau probek osatzen dute guztira, Munduko Kopa, eta txapelketa puntu bidezkoa da.

Eta zelan konpondu zara?

Iaz baino hobeto. Alde handia igarri dut iaztik hona. Hango maila oso altua da; iaz, lehenengo aldia izatera, aurrekoak jarraitu ezinik ibili nintzen. Aurten, ostera, eurekin batera ibili naiz; ondo ibili naizela esan daiteke, beraz.

Proba bakoitzean modalitate jakin batean lehiatzen gara. Melbournekoan, berriztar batez batera (Iban Leanizbarrutia) lehiatu nintzen; ‘amerikarra’ modalitatean, hain zuzen ere. ‘Amerikarra’ delakoa binakako errelebo lasterketa bat da. Ondoren, Pekinen, ‘puntuazioa’ delakoan aritu nintzen; hor ibili naiz gusturen. Ondoren molda-

zaren naizen modalitatea ere hori da. Azkenekoan, Manchesterrekoan, ‘jazarpenean’ aritu ginen. Lau kilometroko erlojuaren aurkakoa da hori.

Errepidekoak zale gehiago ditu; agian, jarraitzeko sinpleagoa delako

Zelan doa, oro har, denboraldia?

Oraingo oso ondo, bai niretzat bai talde osoarentzat ere. Irailean Espainiako Txapelketan aritu ginen, eta probetako batean bigarren egin nuen. ‘Skratz’ proban, hain zuzen ere. Espainiako Txapelketan, Elite mailan, domina bat lortzea eta Munduko Kopan besteekin batera lehiatzea oso ondo dago.

Hemendik aurrera, Espainiako Kopan arituko gara. Txapelketa hori ere puntukakoa da,

hainbat proba ditu. Lehenengo biderra du, eta ez dugu erreferentziarik, baina ahalik eta ondoen egiten ahaleginduko gara.

Lesioek errespetatu zaituzte?

Bi urtez min hartuta egon naiz; belauna, Akilesen tendoia... bi urte oso txarrak igaro ditut. Etsigarria da, baina aurrera egitea lortu dut.

23 urte gaz, palmares dotorea duzu. Noizbait Joko Olinpikoetara lehiatzeko usterik baduzu?

Oraina da buruan daukadana. Oso gaitza da, baina ahaleginduko naiz. Horretan nabil.

Errepideko denboraldia hasi da orain. Non zabilta zu gusturen?

Ni gusturago pistan. Ez dakit emaitza hobekak lortzen ditudalako den, lanaren ordaina handiagoa delako, baina pistan gusturago nabil errepidean baino.

Errepideko denboraldia prestakuntzarako hartzen dugu, gainera. Pistako denboraldia irailean hasten da, eta maiatzean amaitzen da. Denboraldia hasi arteko tarte hori geldirik ez egoteko aritzen gara errepidean; forma ez galtzeko eta entrenatzeko, batez ere.

Iban Leanizbarrutia eta Unai Elorriaga taldekide dituzu...

Iban eta biok bizi guztia darama-

gu batera. 13 urte geneuzkanetik, beti elkarrekin.

Unai Europako txapelduna da; eredu bat niretzako, beraz. Beragandik ikasten ahalegintzen naiz beti.

Beraz, Durangaldean badago harrobirik?

Nik gazteak ikusten ditut belodromoan, baita neskak ere. Ea zerbait irteten den. Gaur egun belodromoan nahiko talde polita dabilela uste dut.

Orokorrean pista apur bat alboraturik dagoela uste dut. Hala ere, ezagutza faltagatik dela deritzot. Pista ez da inon ikusten, zaila da ezagutzea, beraz. Manchesterren, ostera, ezberdina da, sekulako zaletasuna dago. 3.000 ikuslerentzako belodromoan egon gara, eta hilabete lehenago sarrerak agorturik zeuden jada.

Alde handia dago orduan...

Inglaterra beste kontu bat da. Han beste era batera bizi dute. Pista errepidea baino garrantzitsuagoa da. Alderaturata, hemen oso zaletasun txikia dago. Senideak izaten dira probak ikustera joaten direnak, gehienbat. Errepideak jarraitzaile gehiago ditu, beharbada, sinpleagoa delako. Pistan modalitate ezberdinak daude, eta, beharbada, nekeza dago jarraitzea. ■ A.M.

Garaipenagaz hasi du Biharko Izarrak Olalde mallabitarrak

Biharko Izarrak txapelketako lehenengo partiduak jokatu dira jadanik. Eskualdeko pilotariak pausu sendoagaz hasi dute txapelketa. Olalde (22-11) eta Aldape (22-19) mallabitarrak eta Azpiri (22-14) elorriarrak puntu bana lortu dute. Landaburu elorriarrak, berriz, 17-22 galdu zuen. Txapelketa jokatzeko sistema betikoa da: bi multzotan banatuta, denek denek kontra jokatuko dute. Puntu gehien eta aldeko tanto gehien dituzten aurrelariak eta atzelaria finalerdietarako sailkatuko dira. Aldape mallabitarrak atzo gauean zenbigarren partidua jokatzeko. ■ A.M.

Arrastoa ez galtzen saiatuko da Kulturala

Lehenengo postuetan dauden arrastoa ez galtzeko, Kulturalak beharrezko du jardunaldi honetako puntuak Tabirari geratzea. Eibar B taldearen kontra jokatuko dute partidua. Zallaren kontra 1-0 galdu ondoren, Kulturalari dinamika ona berreskuratzea dagokio. Eibar B sailkapeneko erdialdean dago, beraz, aukera egokia dute durangarrek puntuak eskuratzeko.

Zallatik esku hutsik itzuli arren, oraindik play-off postuetan darrai Kulturalak; laugarren, hain zuzen ere: Audio, hirugarren sailkatua, 2 puntura daukate. Beasain 5. sailkatuarekiko sei puntuko aldea mantentzen du, oraindik. ■ A.M.

Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak gaur

Gaur, 18:00etatik aurrera, Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak jokatuko dituzte kadete, gazte eta nagusien bigarren mailan, Abadiñoako Tornosolo trinketean.

Kadeteetan Iturbek eta Elorriagak Fullaondoren eta Uribereren aurka jokatuko dute. Gazteetan Ziarrusta eta Etxebarria Gorosabel eta Pujanaren kontra ariko dira. Azkenik, nagusien bigarren mailan Durangaldeko bikoteak lehiatuko dira; Mallabiko Garaizabal eta Garitagoitiak Atxarteko Arabiourrutia eta Aspuru izango dituzte aurkari. ■ A.M.

Meritu handiko bigarren postua Herrialde Artekoan

Virginia Sagarduy eta Ines Etxegibel durangarrek gidaturiko taldeak 27-7 galdu zuen finala. DRTko hiru jokalaririk lehiatu dira taldean



Reyes Goikoetxea durangarrak txapelketako minutu guztiak jokatu ditu.

Herrialdeen Arteko Txapelketa bost biderrez jarraian irabazi eta gero, 2011koan txapelkunorde izateagaz konformatu behar izan du Virginia Sagarduy durangarrak gidaturiko Euskal Selekzioak. Gironan (Catalunya) ospatu zen txapelketa hori, otsailko azkeneko asteburuan. Galizia eta Andaluziako taldeei irabazi ondoren (10-7 eta 22-0), finala 27-7 galdu zuten Madrileko taldearen kontra. Sagarduyk adierazitakoaren arabera, taldeak asko igarri ditu min hartuta dauden bajak. "Min hartuta ditugun jokalariek Espainiako selekzioagaz jokatu ohi dute; baja garrantzitsuak izan dira, beraz". Hala ere, egoera kontutan hartuta, "pozik" itzuli dira Euskal Herrira.

Finalera heldu aurretik, Galiziaren eta Andaluziaren kontra jokatu behar izan zuten. Sagarduyren berbetan, "gakoa" lehenengo partidu hori irabaztea izan zen. "Galiziako taldea oso fin ibili zen, eta partiduko zati batean berdinduta egon ginen.

Azkenean partidua irabaztea lortu genuen". Andaluziarren aurka, berriz, lasaiago ibili ziren Virginia Sagarduyk gidaturiko neskek. "Partidua ez zen Galiziakoaren aurkakoa bezain ikusgarria izan". Aitziber Porrasesek min hartu zuen partidu horretan. Finala,

Sagarduy: "Gakoa taldearen bihotza, grina eta eskuzabaltasuna izan dira".

Euskal Selekzioa bajaugarigaz heldu da Herrialdeen Arteko Txapelketara

azkenik, beste kontu bat izan zen. Hasiera batean madrildarrei eusteko kapaz izan ziren arren, 2. zatia bestelakoa izan zen. "Bigarren zatian gure gaintetik pasatu ziren". Lortutako emaitzagaz gustura geratu direla dio Sagarduyk, hala ere. "Taldeak duen guztia eman zuen, eta horri esker lortu dugu txapelkunorde izatea. Gakoa taldearen bihotza, grina eta eskuzabaltasuna izan dira, hain zuzen ere".

Sagarduy ez da izan Gironan egon den durangar bakarra. Euskal Selekzioagaz Reyes Goikoetxea, Maider Nuñez eta Ainara Lopez jokalariek aritu dira. Orokorrean, jokalaririk guztiek egindako ahalegina eskertu du Sagarduyk, baita durangarrena ere. "Goikoetxeak txapelketako minutu guztiak jokatu ditu, adibidez". Sagarduygaz batera Ines Etxegibel durangarrak entrenatzen du taldea. Olatz Fdez. de Arroyabe elorriarrak eta Eduardo Muñoz durangarrek osatzen dute talde teknikoak. ■ A.M.

Aurrera egiteko azkeneko aukera Berasaluzerentzat

Jardunaldi honetan erabakiko da Binakako Txapelketan aurrera egingo duten ala ez

Binakako Txapelketan aurrera egitea oso gaitz dauka bikote bizkaitarrak. Geratzen zaizkien bi partiduak irabazi egin behar dituzte derrigor; berdinketak desegin ahal izateko, tantokopuru handiagaz irabazi behar dituzte, gainera. Bi partidu horietako lehenengoa etzi jokatu

Ibai Zabalak gaur jokatu du, Zornotzan, 22:15ean

dute Tolosako Beotibar pilotalekuan. Aurrean Irujo eta Merino II.a izango dituzte. Bederatzi jardunaldiren ondoren, Berasaluzek eta Apraizek hiru garaipen lortu dituzte. Finalerdietarako hiru txartel daude jokoan, eta sei bikotek dituzte horietako bat lortzeko aukerak. Xala eta Barriola sailkaturik daude jada.

